



Carlos Garaikoetxea, diktadura osteko lehenengo lehendakaria:

“Biolentziak aukera ematen die alderdi espainiarrei abertzaleen arteko zatiketaz aprobetxatzeko”

Hasierako garai latz haiek ekarri dizkigu gogora: ilusioak, proiektuak, traizioak... Baina etorkizunaz ere luze jardun du, itxaropentsu: erreferendumaz, abertzaleak batu beharraz, biolentziaren arazoa konpontzeaz...

8. or.

Erreportajea:

Jon Azua, Ramón Jauregui eta Mario Fernandez, autonomiaren 25. urteurrenaz mintzo

Gernikako Estatutua orain dela 25 urte jarri zen abian, eta, horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren, Legebiltzarraren eta gaur egun gure autonomiaren zutabe diren erakunde gehienak. Hasiera latzak izan ziren haiek: gobernuaren bateko gelan biltzen zen, krisialdi ekonomikoak gogor zigortzen gintuen, zentralismoaren aldekoek begi zorrotzez ikusten zituzten hemen egindakoak. Ondo baino hobeto gogoratzen dituzte garai haiek erreportaje honetara ekarri ditugun hiru gizonen, hirurek parte hartu baitzuten demokraziaren hastapeneko euskal gobernu horietan lehendakariorde gisa: Jon Azua, Ramón Jauregui eta Mario Fernandez. Oroitzapenez eta etorkizunerako aurreikuspenez gozatzeko aukera izango duzue.

12. or.

Eztabaida:

Zenbateraino da beharrezkoa jarduera komertziala arautzea, horren ondorioz merkataritza gune handiak ezartzea zaildu eta dendetako ordutegia murrizten bada?

Aspaldion denon ahotan dabiltza honelakoak: denda handiak ala txikiak? Jaiegunetan ireki ala ez ireki? Erosteke eta aisialdiko ohiturak aldatu ditugu dagoeneko? Hartzen al dira kontuan kontsumitzaileen iritziaz? Galdera horiei eta beste batzuei erantzun nahian bildu ditugu hainbat iritzi.

20. or.

6

Idazkiak

Lan-bilerako akta eta oharretako orria

11

Euskalduntzea

IVAPeko estilo-liburua

25

Ba al zenekien?

Euskalduna eta esklabotza

Honekin batera,
Solasaldiak:

PEDRO MIGUEL ETXENIKE



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:

Joseba Lozano

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Marrakziak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:

Aintzane Arrieta, Luis Elizondo, Luistxo Fernandez, Hur Gorostiaga, Iñaki Gurtubai, Maddalen Iriarte, IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atala, Karnele Jaio, Joseba Lozano, Luma, Eneko Oregi, Visitación Pereda, Josemari Robles, Josetxo Sastre, Rosa Mari Urrutia.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

aldizkarian argiratutako artikulua berridatuz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legeko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /http://www.ivap.org

PERTSONAIA

**Niko Etxart,
musikaria:
“Euskal rock and roll
klasikoan zegoen hutsunea
betetzera goaz”**



Argazkilaria: Gaizka Irozena

Kaleratzeaz duen azken diskoaren prestaketa lanetan harrapatu dugu Niko Etxart. Familian izandako ezbeharrak medio, 10 urte zeramatzan lan berririk plazaratu gabe, eta horra non, lau hilabete-ko epean bi disko kaleratu dituen. Joan den abenduan *Eperra* diskoa jalgi ondoan, aita eta koinatarekin, orain disko berri batekin heldu zaigu: *Minuette*. Euskal rockaren aitzindaria, 40 urteko musika ibilbidearen ondoren, rockaren erroterat itzuli da.

Isilune luze baten ondoren, indar berriz heldu zaigu Niko Etxart.

Hamarkada gaiztoa pasaturik ere, beti jarraiki dut ohiturazko kantuak emaiten nire aita eta Robertekin, baita plazaz plaza *Hapa-Hapa* taldearekin ere. Artean, kantu batzuk prestatzen eta grabatzen ari izan gara. Egun dugu fruitu horien dastatzeko tenorea.

Epe horretan *Urruti Jauregiko Peirot* pastoralara egin duzu ere. Pastoral, euskal kantu klasikoak... eta zer bilakatu ote da euskal rockaren aitzindaria?

Justuki *Hapa-Hapa* taldearekin eta *Minuette* lanarekin erronka berri bat finkatu dugu. Gure denboran oso gaizki ikusia zen rockaren egitea. Baina rockak egin zuen bere bidea euskal musikan ere. 80 hamarkadan *Itoiz* taldeak lortu zuen arrakastatik landa, Euskal Herria oso rockero bilakatu zen. Baina *Eskual Rock and Rolling* gure diskoaz aparte, rock klasikoan ez zen euskaraz besterik egin, euskal taldeak rock progresibo batera joan ziren, rock intelektualago eta sofistikuago batera. Iruditzen zait euskal rock and rollean kapitulu bat falta dela. Euskal musikagintzan oinarritzko rockaren sorkuntza bat falta dela iduritzen zait. Nire fantasian falta zen kapitulu hori bete dugu *Minuette* lanarekin. Hori da lan honen oinarria, 25 urte geroago, falta zen kapitulu horren egitea. Euskal rock and roll klasikoan zegoen hutsunea betetzera goaz.

Ezagutzen dugun hainbat musikaririk rock gogorretik musika eztiagoetara egin du bidaia. Zu aldiz, alderantziz, berriz ere erroterara itzultzen zara. Ez al da lanjerosa modaz kontra joatea?

(Irriak) Hori naturalki egiten dut, kalkulatu gabe. *Minuette* lana bada sei edo zazpi urte abiatua dugula. Nik badut xantza bat, nire

fantasien betetzeko ahala dudala. Eta helburu horretan, lehen egitekoa nire herritarrak konbentzitzea da, segidan Paris, Madril edo Bartzelonara begiratzen hasi gabe, egun maleruski euskal talde gazte anitzek egiten duten bezala.

Euskal Herria goitik behera ibili duzu urte luzez, baina zure oinarria beti Altzain, Zuberoan atxiki duzu. Ez al zen errazago Bilbo edo Donostia aldera bizitzera joatea rockaz bizitzeko?

Gazte denboran 19 urte pasa nituen Parisen, herritik urrun. Herrimina eta herriaren falta hain izan zen handia, herrira itzultzean erroak Zuberoan sartu eta ez gehiago ateratzea deliberatu nuela. Niretako ez da problema bat, bi edo hiru oren aboro egitea, euskaldunon eremu naturalean: Euskal Herrian, zazpi probintzietan, euskal kantagintzaren airatze-ko eta defendatzeko.

“Rock and rollak ez du inoiz dirurik emanen” erranaldia ezaguna da Euskal Herrian. Nola egin duzu zuk hainbeste urtez rockaz bizitzeko?

Garik arrazoin zuen erratez rockak ez duela inoiz dirurik emanen. Nire kasuan, beti oso errealista izan naiz. Musikatik bizitzeko anitz busti naiz. *Akelarreko* Markosek biziki ongi adierazten duen bezala, Hegoaldean berbeneroak ez dira sekula ongi ikusiak izan. Baina ni busti naiz eta bizi ahal izateko berbena egin behar bazen diru pixka bat eskuratzeko, ba... nik berbena egin dut, eta kitto. Baina xantza ere ukan dut, uste baitut hainbeste urteren ondoren Nikozaleak ere badirela. Biziki eskertzen ditut urte luzez segitu nauten guzi horiek.

**Hur Gorostiaga
Kazetaria**

**Bruselatik**

Agur t'ardi adiskideak:

Zuen aldizkariaren 47. zenbakia jaso nuen, baita irakurri ere. Eskerrik asko zuen berriengatik. Aurten ere espero nuen zuen egutegia, baina ez didazue bidali, bera nire aurrean izan dut lagungarri aurreko urteetan. Aurten hemengo egutegiarekin arituko naiz, euskalduna ahantzita. Herritik urruti gaudenean gure Euskal Herriko gauzak gogotik estimatzen ditugu. Nik ohitura dut egunero idazteko euskaraz egunean bizitako berriak, eta horrek laguntzen dit gure hizkuntza bizirik mantentzen nigan. Bestela eguneroan frantsesez edo neerlandez ari naiz errefuxiatu eta etorkinekin nire sozial lanean. Afrikan ugari izaten ditut nire inguruan baita ere, eta Rwandarrak direnean kirundi ibiltzen dut hizkuntza bezala; beraien hizkuntza kinyarwanda da eta kirundiarekin parekatuta dagoenez, erraz ulertzen dugu elkar.

Horrela doaz nire hemengo berriak. Zuen aldizkaria irakurri ondoren, Belen Aldanondori pasatu diot; bera Segurako alaba da, monja eta urteak daramazki hemen Frantziskoturretan. Elkartzen garenean gogotik egiten dugu euskaraz.

Hurrengorarte adiskidetasunez,

Begoña
Brusela

**Zaindu gure inguruak**

Badakit aurrerako lan assssko daudela, badakit, gainera, lan horiek garrantzitsuagoak direla, beharrezkoagoak eta... garestiagoak; halere, uste dut badela garaia inguruari begirune gehiago izateko. Zer ikusten duzue zuek edozein herri-tako kanpoaldeetan? Traste zahar pila bat, txabola zahar pilo bat, edozelako etxe eta tailerrak (zahar eta berriak) perretxi-ko ustelak bezala: industri gune baten inguruan dena da libre: kaka guztia pilatzen da hor: hartu bestela Galdakaotik gora Barazarko bidea: hor argi ikusten da non den dena libre eta non ez.

Kontua da gure herri hau oso txikia dela, eta ondo dago hiriburuetan dirua gastatzea, baina ez dena, ezta? Nik uste dut badela garaia arreta gehiago jartzeko herrietan eta ingururunea itxuraz eta dotore gordetzen hasteko. Ezin dugu Euskal Herria bitan banatu, alegia: gune ikusssgarriak (agintariak bizi diren tokiak eta parke naturalak) eta gune alperrik galdutakoak, non, jakina, dena den libre.

Ea bada gure politikariak (txoferrak gidatzen duenez, erraz daukate) bentanatik begira jartzen diren eta konturatzen diren *ven y cuéntalo* paraje gutxi daudela gure herrian eta *ven y cuéntalo* paraje idiliko horretara heltzeko makina bat lur hondatu ikusi beharko dituela bisitariak.

Irati Mendizabal
Bizkaia

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Zuen iritziak, proposamenak, iradokizunak... bidaltzeko, idatz ezazue helbide honetara: webivap@ivap.es.
Mezuekin batera, izen-abizenak eta ENA adierazi beharko dituzue. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du testuak laburtzeko.

Garraio eta Herri Lan Sailaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2003-2007)

10/82 oinarritzko Legeak¹ herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Eskubide horiek bermatzeko, eta euskara, gaztelaniarekin batera, administrazio barruko zerbitzu-hizkuntza² nahiz lan-hizkuntza³ bilaka dadin, herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua abian jarri nahi izan da 86/1997 Dekretua⁴ oinarritzat hartuta. 86/1997 Dekretuaren 4. artikulua araber, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar du. Honela, Jaurilaritzaren Kontseiluak, 2004ko uztailaren 27ko Akordioaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2003-2007 aldirako Plana onartu zuen⁵.

Araudiaz gain hizkuntza normalizazioak badauzka, nire ustez, bestelako oinarriak ere:

Herri-agintek bere gain hartu behar dute euskararen aldeko politika

Administrazioan euskararen normalizazioa lortzeko administrazioiko kide guztion parte hartzea eskatzen badu ere, herri-agintek izan behar dute, dudarik gabe, prozesu hori bultzatuko dutenak. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu daitezkeen administrazioiko langileek euskara ikasi eta erabili beharra ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa. Herri-agintek euskara normaltasunez erabiltzea ahalbidetuko duten neurriak hartu eta neurri horiek errespetarazi behar dituzte. Are gehiago, langileentzat eredu garri izango diren jokabideak bereganatu behar dituzte euskarari merezi duen prestigioa emate aldera.

Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea

Gaur egun kalitatea gizartearen eskakizuna da eta kalitatea oinarritzat hartzen duen kultura sendotzen ari da administrazioetan. Nire ustez, gizarte elebidunetan ezin da zerbitzuen kalitatea aipatu hizkuntzaren normalizazioa aipatu gabe. Hau da; ez dago kalitatezko zerbitzurik herritarrei euren hizkuntza erabiltzeko aukera eman ezean.

Aipatutako guztia kontuan izanda, Garraio eta Herri Lan Sailak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu du 2004ko abenduaren 10ean.

Planaren edukia

Garraio eta Herri Lan saileko planak EAeko Herri-Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2003-2007

¹ Azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko LEGEA, euskeraren erabilpena arazkotzekoa.

² Zerbitzu-hizkuntza: administrazioarekin ahoz edota idatzizko harremanetan erabiltzen den hizkuntza.

³ Lan-hizkuntza: lanpostuari dagozkion zereginak betetzean erabiltzen den hizkuntza.

⁴ 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.

⁵ 15/2004 EBAZPENA, abuztuaren 2koa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena.

aldirako Planaren ildo nagusiak jarraitzen ditu helburuei, landu beharreko alorrei eta lehentasunei dagokienean.

Helburu nagusia sailean euskararen erabilera areagotzea izanik, zerbitzu-hizkuntza ez ezik beste administrazioekiko harremanetarako hizkuntza eta lan-hizkuntza ere bilakatu nahi da euskara.

Planak lantzen dituen alorrak

- Helburuak betetzen lagunduko duten hizkuntza prestakuntzarako irizpideak.
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide zehatzak.
- Itzulpen politika osagarria.
- Erabilera sustatzeko neurriak.
- Planean aurreikusten diren normalizazio-ekintzak aurrera eramateko beharrezko baliabideak.
- Helburuen betetze-mailaren jarraipena.
- Planak saileko jendaurreko eta gizarte izaerako administrazio-atalei eragiten die zuzenean: 13 atal eta 67 lanposturi, hain zuzen.

Planak proposatzen dituen normalizazio-neurriak

Hizkuntza prestakuntza orokorra. Jendaurreko lanpostuetako langileei eta gizarte izaerako teknikariei, euren lanpostuen hizkuntza eskakizuna edozein izanda ere, gutxienez, 3. hizkuntza eskakizunari dagokion mailara heltzeko aukera eskaintzea aurreikusten da.

Trebakuntza. Euskara gaitasun egokia duten langileentzako trebakuntza saioak antolatuko dira hizkuntzaren ezagutzatik erabilerara dagoen jauzia ematen laguntzeko. Saio horietan langileak bere jardunean erabiltzen dituen dokumentuak landuko ditu.

Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak. Ahoz nahiz idatziz herritarrekin zein gainerako administrazioekin dituzten harremanetan hizkuntza ofizialak nola erabili adieraziz jarraibideak emango zaizkie langileei.

Tresna eta aplikazio informatikoak. Aplikazio informatikoak ele bietan erabili ahal izango dira. Horrez gain, dagoeneko erabiltzen diren aplikazioek ematen dituzten dokumentuak aztertu eta, behar izanez gero, egokitu/zuzendu egingo dira.

Dokumentuak egokitu. Dokumentuak estandarizatu eta eredu elebidun egokiak prestatuko dira.

Hizkuntza jarraibideen osagarri diren itzulpen-irizpideak. Itzulpen-beharrizanak aurreikusi eta horiei erantzuteko lehentasunak ezartzen ditu planak.

Hizkuntza aholkularitza. Euskaraz lan egiten hasten diren langileei hizkuntza aholkularitza eskainiko zaie; alde bateatik, izan ditzaketen zalantzak argitzeko, eta bestetik, euskaraz lan egiten laguntzeko dauden tresnak ezagutarazteko.

Hizkuntza-irizpideak. Kontratazio administrazioak, diru-laguntzak eta baimen eta emakiden menpe dauden jarduerak aztertuko dira eta, herritarrekiko harremana badakarte, hizkuntza irizpideak jasoko dira ekintza horien esleipen-baldintzetan txertatzeko.

Joseba Iñaki Gurtubai
Garraio eta Herri Lan Saileko zerbitzu zuzendaria


Oharretako orria eta lan-bilerako akta

Idazki-eredu hauek IVAPeko estilo-liburu-tik¹ aterata daude (laburturik); badakizu, beraz, nora jo, argibide gehiago nahi izanez gero.

Oharretako orria

Bileretan oharrak-eta hartu behar izaten ditu idazkariak, eta ez idazkariak bakarrik, gainerako partaideek ere maiz izaten dute zer apuntatu. Horretarako prestatu dugu oharretako orria. Izan ere, orri hori eskura izatea askozaz lagungarriago izango zaizu orri zuria baino.

Oharretako orri bakoitza aztergai bati buruzko aipuak hartzeko prestatuta dago; hau da, bileran zenbat gai jorratu, hainbat orri eraman beharko ditugu fotokopiaturik; zeresanik ez dago, bilerari buruzko datuak (eguna, bertaratuak...) lehen orrian bakarrik idatziko ditugu.



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

BILERA-AKTA
Oharretako orria

ACTA DE REUNIÓN
Hoja de notas

ZEHAZTASUNAK
IDENTIFICACIÓN DE LA REUNIÓN

Organoa/Gaia
Organo/Título

Eguna Hasiera-ordua Amaiera-ordua
Día Hora de inicio Hora de finalización

Bertaratuak Bertaratu ezina adierazi dutenak
Asistentes Excusan su ausencia


AZTERGAIA
ASUNTO

ESAN-EGINAK
DELIBERACIÓN

ERABAKIA
ACUERDO

BOZKETAREN EMAITZAK
RESULTADO DE LA VOTACIÓN

Parte-hartzaileak / Participantes	Aldekoak / A favor	Aurkakoak / En contra	Aho batez onartua Aprobado por unanimidad
			<input type="checkbox"/>
			Gehiengoz onartua Aprobado por mayoría
			<input type="checkbox"/>
			Ez onartua Rechazado
			<input type="checkbox"/>
GUZTIRA / TOTAL			



¹ Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. IVAPeko estilo-liburua. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2005.

Definizioia


Lan-bilerako akta eta bilera-akta ez dira berdin-berdinak. Lan-bilerako akta askozaz ere trinkoagoa eta zehatzagoa da, eta bertan, bakar-bakarrik, garrantzia duten datuak jasoko ditugu, hau da, ez da hain inportantea esan-eginak, erabakiak edota bozketen emaitzak zehatz-mehatz biltzea; lan-bilerako aktetan pisua du halako lana *zeinek* eta *noizko* egingo duen ongi adierazteak.

Idazteko irizpideak

Akta normaletako *Esan-eginak eta erabakiak* atalean ahal denik eta komentario gutxien jasoko dugu, eta erabakiaren ondoan beste puntu bi paratuko ditugu: *arduraduna* eta *epea*.

Lan-bilerako aktak badu beste atal bat: *Hurrengo lan-bilerako deia*. Eta ondoko hauek agertuko dira bertan: eguna, parte-hartzaileak eta aztergaiak. Lan-bilerako akta hauek ez dute amaierako esaldirik. Nahikoa da idazkariak sinatzea.

Ikusten denez, bizi eta labur egin dugu, baina sarri gertatuko zaigu bilera horrekin zerikusia duen informazio mordoia izatea: txostenak, inprimakiak... Horiek guztiak erantsita joango dira, eta ereduari erreferentzia egingo diegu *eranskinak* jarrita.



LAN-BILERAKO AKTA
KALITATE-PROZESUA: Administrazioa euskaraz aldezkaria

ZEHAZTASUNAK
IDENTIFICACIÓN DE LA REUNIÓN

Organoa/Izena <small>Organismo/Título</small>	XX-00 Arloko batzordea	Bilera-zenbakia <small>Nº de sesión</small>	3
Eguna <small>Día</small>	Tokia <small>Lugar</small>	Hasiera-ordua <small>Hora de inicio</small>	Amaiera-ordua <small>Hora de finalización</small>
2006/01/12	IVAP: Gasteiz (Zadozra gela)	09:30	13:30

Berlaratuak
Asistentes

Joseba Larrañaga, zerbitzuburua
 Nerea Grijalba, aldezkararen arduraduna
 Soraya Urrutia, kaitateko arduraduna eta idazkaria

Berlaratu ez direnak
Excusos sin asistencia

Lourdes Uriarte, teknikaria

AZTERGAIK
ORDEN DEL DÍA

1. Datu-base bat egitea aldezkarian parte hartzen dutenekin (PR-07-45).
 2. Parte-hartzaileen lana ebaluatzea (PR-07-46).
 3. Harpidedunak gustura dauden jakitea (PR-07-47).


EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK
DELIBERACIONES Y ACUERDOS


1. Datu-base bat egin aldezkarian parte hartzen dutenekin (PR-07-45)
 Nerea Grijalbak ekarri du beharrezkoa den informazioa, baina esan du datu-basea informatikoren batek egin beharko duela.

Erabakia: informatiko bati esan eta datu-basea amaitzea.
Arduraduna: Nerea Grijalba
Lehetasuna: 2
Hasi: 2006/01/19 **Bukatu:** 2006/03/10

2. Parte-hartzaileen lana ebaluatu (PR-07-46)
 Nereak esan du ale berria prestatzen hasita daudela dagoeneko. Joseba Larrañagak azaldu du ale berri horretatik aurrera egin daitekeela ebaluazioa.

Erabakia: parte-hartzaileen lana ebaluatzeko sistema sortzea.
Arduraduna: Nerea Grijalba
Lehetasuna: 1
Hasi: 2006/01/19 **Bukatu:** 2006/02/10





EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK
DELIBERACIONES Y ACUERDOS

3. Harpideak gustura dauden jakin (PR-07-46)
 Nerea Grijalbak esan du harpidetzek gora egiten dutela etengabe. Soraya Urrutiaren ustez, onena da inkesta bat egin eta Interneten jartzea.

Erabakia: inkesta bat egitea Interneten jartzea.
Arduraduna: Nerea Grijalba
Lehetasuna: 3
Hasi: 2006/01/19 **Bukatu:** 2006/04/28

ERANSKINAK
ANEXOS


Aldizkariko parte-hartzaileen datu-basea egiteko informazioa.

Soraya Urrutia
idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urtarrilaren 12a

HURRENGO LAN-BILERAKO DEIA
CONVOCATORIA DE LA PRÓXIMA REUNIÓN

Eguna <small>Día</small>	2006/02/27
Deitutakoak <small>Convocados</small>	Joseba Larrañaga, zerbitzuburua Nerea Grijalba, aldezkararen arduraduna Lourdes Uriarte, teknikaria Soraya Urrutia, kaitateko arduraduna eta idazkaria Esther Lozano, informatikoa
Aztergaiak <small>Orden del día</small>	1. Parte-hartzaileen datu-basea. 2. Parte-hartzaileen lana ebaluatzeko sistema. 3. Harpidedunak gustura dauden jakiteko inkesta.



IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atala
Jose Mari Arakama, Aintzane Arrieta, Joseba Lozano,
Josemari Robles, Rosa Mari Urrutia



Carlos Garaikoetxea:

“Botere zentrala askoz ere gehiago kezkatzen du gobernu abertzale batek ETak berak baino”

Garaikoetxea lehendakariak, titulua ez baita bizi artean galtzen, Iruñean du lehendakari izateagatik kargu hori izan duten guztiei dagokien bulegoa. Euskal Herriko hiriburu zaharretik jarraitzen du beraz, herri honen taupada. Ez da, ordea, geldi egotekoa eta batetik bestera dabil etengabe. Beti bezala saiatu da biziki eskertzen diogun zirrikitu bat guretzat aurkitzen. Euskal Kontseilu Nagusian Ramon Rubial sozialistaren lekukoa hartu ondoren, behin-behineko erakunde haren presidentzia onartu eta berehala diktadura ondorengo lehen Eusko Jaurlaritzaren lehendakari izan zenetik 25 urte joan dira ia oharkabeen. Atzera begira jarri dugu une batez, baina bere itzala luzea da eta ezin gaur eguneko egoera aztertu gabe joaten utzi.

25 URTE BERANDUAGO...

25 urte joan dira, Garaikoetxea jauna, eta oharkabeen joan arren, beharrezko perspektiba eman diezagukeen denbora epe hori tarteko, nola gogoratzen duzu garai hura?

Ilusio handien garaia izan zen. Urte luzez diktadura jasan ondoren itxaropen, emozio eta proiektu eztanda bat bizi izan genuen. Euskal Herriaren kausa, abertzaleen bandera bai, baina beraien burua progresistatza zutenena ere bazen. Errebindikazio nazional gisara Euskadi zen erreferentzia nagusia. Gero etorri zen gure aldarrikapenak beheratu zituen “kafea guztiontzat” eskainiz 17 autonomiak berdindu zituen egoera.

Oso gaztea zinen hartu zenuen kargurako. Ez al duzu tarteka pentsatzen nola otu zitzaizun konpromiso ikaragarri hari heltzea?

Euskal Kontseilu Nagusiko presidente izatea proposatu zidatenean, apur bat gaituta sentitu nintzen une batez. Ez genuen egoitzarik eta diktadura garaietatik gentoenez, ez genuen inolako esperientziarik erakundeetan. Baina goizetik gauera, nire abokatu bulegoa utzi eta Bilbora joan nintzen, nire soldata kostatzen zitzaidan hotel batera. Larunbatetan itzultzen nintzen Iruñera, familiarengana eta Foru parlamentuan nituen konpromisoak betetzera. Ilusiorik handiena, orduan PSOerekin hitzartutako Hego Euskadiko lurralde batasuna antolatzea zen. Gero traizionatu egin gintuzten. Baina hura izan zen lurraldetasunerako apustu errealista bakarra.

Dakizuna jakinda eta bide honetan ezagutu duzurenekin, ba al dago berriro errepikatuko ez zenukeenik?

Oro har ez naiz damutzen egindakoaz. Pragmatismoz ekin behar genion, herriaren premia larriei erantzuteko eta diktaduraren itzulera ekiditeko. Kultura alorrean, hizkuntzarenean, ekonomian... egoera oso larria zen. Ezin genuen urte gehiago pasa autogobernurik gabe, espoliazio fiskal ikaragarri haren pean. Gure sare industrialaren gainbehera, euskararena, azpiegiturena eta beste mila gauzena... Egoera ezin zen aldarrikapen testimonialek konpondu. Eta lurralde batasuna, berriro diotsut, PSOerekin lotu genuen, sinbolikoki Iruñean osatutako “konpromiso autonomiko” hura zela tarteko. Estatutua beharrezko eta premiazko lanabes bakarra zen.

Damurik ba al duzu?

Batzuetan pentsatzen dut, agian, malguagoa izan nintekeela nire bigarren gobernuaren krisian.

Baina era berean pentsatzen dut joera probintzialistak gaitzeko unea zela eta horretarako Gobernu eta Legebiltzar indartsuak behar genituela. Eskuina, historikoki foru-probintzialismoa proiektu nazionalaren kontra erabili izan duena, orain baino ahulagoa zen. Zoritzarrez, EAJren zuzendaritzak berak Guevararen moduko pertsonaiak erabili zituen nire ideia desegiteko. Batzuek amore emateko esaten zidaten, beste batzuek Legebiltzarrean irauteko. Irtenbide duin bakarra dimisioa ematea zela uste dut. Gaur egun batzuek Euskadirentzat “Ez Espainia” izatearen kostuaz kontuak ateratzen dituzte. Norbaitek neurtu beharko ditu lau gobernuak eta lau legebiltzarrek beraien epigono eta guzti ekonomikoki xahu-

**“Gehiengo demokratiko
batek berriz babesa
ematen badio Euskadirako
Estatutu Berriari, Madrilek
negoziatu egin beharko du”**

tutakoak eta egoera haren kostu politikoak. Baina nola kalkulatuko liteke, Kontzertu ekonomikoa birnegoziaztean batzuz mahaiaren bi aldetan esertzea? Edo Estatutua eraberritzen bada, Euskaditik “irten” egingo direla esatea? Hori duela 25 urte esan zezaketen!

Garai hartan pentsatu ahal izan zenuen, 25 urte beranduago, Euskal Herriaren egoera gaurkoa izango zela?

Ez. Ez nuen PSOEn traizioa espero eta ez nuen uste ETAK ekinean jarraituko zuenik, biolentziaren arazoa dela-eta alderdi espainiarrei abertzaleen arteko zatiketaz aprobetxatzeko aukera emanez. Eta batez ere, gaur egun ezberdin pentsatzeagatik inor hilko zutenik. Nolanahi ere, esan nuen nire lehenengo hitzaldietako batean –Estatutua onartu eta egin nuen lehenengoan– hau letra idatzia baino ez zela eta indarrean jartzea izango zela benetako kinka... hala ere, sekula ez nuen pentsatuko botere zentralak hain desleialki interpretatuko zuenik, bere edukia beheratuz.

Hauteskundeak eta Euskadirako Estatutu Berria

Egun gutxi barru Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan hauteskundeak izango dira. Zer espero duzu bozketa horretaz? Nola ikusten duzu panorama?

Egoera konplexua da, euskal gizartea konplexua delako. Inor ez da ausartzen gauzak diren bezala esaten, baina Euskadi konplexua da: hainbat herri eta hiritan gehiengo dira sentimendu nazional espainola dutenak, batez ere lider politikoak, eta izututa gelditzen dira euskal nazioaren aldarrikapena entzute hutsarekin! Baina duela mende laurdenetik hona Eusko Legebiltzarraren ordezkariaren gehiengoak euskal kontzientzia nazionala du. Datozen hauteskundeetan gehiengo hori errepikatuko da, nahiz eta botere zentralaren jokaldia argia den: Alderdien legearekin boto sail bat ezerezean utzi, eta boto horiek EAJ eta EAra joan ez daitezen saiatuko da, izan ere askoz ere gehiago kezkatzen baitu gobernu abertzale batek ETAK berak baino.

“Euskadirako Estatutu Berria” deritzonaren etorkizuna nola ikusten duzu, Legebiltzarrean gehiengo osoa lortuta eta Madrilen jasotako ezezkoaren ostean?

Espero dut Legebiltzar berriak berriro ekingo diola eta bere inguruan adostasun handiagoa lortzen saiatuko dela. Baina bat etortze hori ezinezkoa denean gehiengoaren legeak bakarrik balio du, ez gutxiengoarenak. Gehiengo demokratiko batek berriz bere babesa ematen badio, Madrilek negoziatu egin beharko du. Ez badu hala egiten, Eusko Legebiltzarrak ongi pentsatu beharko du zer lekukotasun igorri behar dion munduari, gure herriaren ordezkariaren gehiengoak jasotako mespretxua salatzeke. Baina ez dezagun ezer aurreratu eta izan gaitezen baikorrak!

Hauteskunde hauek planaren inguruko plebiszitu modura hartuko dira?

Neurri handi batean bai, baina gainera programak, buruzagitzak, konfiantza eta hauteskunde batzuei dagokien gutzia ere jokoan izango da.

Hauteskunde hauen ostean, plan hau dela-eta herritarroi behin eta berriz esan zaigun bezala, erreferendumik egingo ote den galdetuta, EAn esaten duzue horretan hitza eman duzuela, agindu bat dela. Baina agindu guztiak, hauteskunde promesa guztiak ez dira betetzen. Hau bai?

Nik baietz espero dut. Bestela bere hitza jaten duen Gobernuak dimisioa eman beharko luke.

EAK zer gehiago nahi zuten planaz?

Tira, EAK sekula ez ditu bere helburu estrategikoak ezkutatu, anbiguotasunaren babesean eutsi ahal izango zituen bozkak galtzeko arriskua izan arren. Baina egiazki pentsatzen dut proposamen hau proposamen egoki bat dela gaur, 1979. urtean Gernikako Estatutua posible eta herri honek behar zuena zela pentsatzen nuen bezala.

Zuen alderdiko presidentek, Errazti andreak, esan du Euskal Estatu independentea lortzeko aurrerapauso bat dela plana. Urruti dagoen helburua hala ere, ez duzu uste?

Auskalo! Vilniusko Legebiltzarrean egon nintzenean, han itxita zeuden Landsberghis lituanarra eta Europako beste hainbat buruzagi, eta nik galdera bera egin nion Esloveniako alderdi sozialdemokrataren idazkari nagusiari, eta berak esan zidan oso azkar lortuko zutela independentzia, ziur zegoela. Ez zitzaidan oso errealista iruditu... baina, begiratu zer gertatu zen! Egia da Esloveniako ez dela euskal gizartea bezain “konplexua”... herrialde baltikoak, haiek bai, haiek “konplexuak” ziren, baina beste historia bat zuten eta aldeko baldintzak zituzten.

Zure ustez argi dagoena da plan hau gutxienezkoa dela, eta Espainiako gobernuaren presidenteari igorri diozu mezu hori.

Nik esan nuen Espainiako gobernuaren presidentea banintz, lorpen nahikoa irudituko zitzaidala proposamen horren bidez euskal arazoa konpontzea. Horrela uste dut.

Eta hori lortzeko aukera, hauxe da. Ezin da une hau pasatzen utzi?

Noski. Euskal herritarren gehiengoa PPK eta PSOEk nahi duten moduko autonomia batekin asetuta geldituko dela uste duenak ez du gizarte hau ezagutzen.

Eta plan hau eta gero?

Batzuk argi esan dugu Euskal Estatu bat Europan nahi dugula, eta hori lortzeko lanean jarraituko dugu. Baina politika prozesu dialektiko gisa ulertzen dugula ere esan dugu; beraz, beti egongo gara proposamen eta pentsamolde ezberdinen sintesi demokratiko bat onartzeko prest.

Hauteskundeek harira itzuliz, nola uste duzu eragingo duela elektoralki Batasuna ez aurkezteak?

Elektoralki, Alderdien Legea egin zutenek nahi duten bezala: Eusko Legebiltzarrean eserleku abertzaleak bertan behera utziz, eta euskal nazionalista eta nazionalista espainiarren arteko boto erlazioa aldatuz. Politikoki, gatazkaren konponbiderako gauzak asko zailduz. Baina espainiar buruzagiei ez zaie asko axola marjinetutako sektore politiko baten iraupena, ahul bada ere oraindik ere ekinean jarraitzen duen ETArekin identifikatutako sektorearen iraupena. Aitzitik, argudiotzat hartzen dute biolentzia eta abertzaletasuna nahasteko, eta abertzaleak zatitzeaz gain, boto zenbait bertan behera uztea lortzen dute.

Etorkizunaren berri

Nolanahi ere Batasuna Anoetan finkatu zuen bide politikoaren aldeko apustua ari da berresten behin eta berri...

Hitzek balioa dute ekintzak esaten denarekin bat datozenean, eta, honela, Batasunaren ekintza kontsekuentea ETari bere ekintza armatua bertan behera uzteko eskatzea izango litzateke, horrela elkarrizketa politikoari tokia eginez. Gainera zuk lehen esan duzun bezala, hauteskunde garaian gauza asko esaten dira, eta hemen denok oso zuhurrak bihurtu ginen Lizarra-Garazikoaren ostean.

Nafarroan alderdi abertzaleek bat egitea lortu zuten eta NA-BAI sortu, Espainiako Parlamenturako Uxue

Barkos diputatua hautatua izan zedin, eta lortu zenuen. Beste horrenbeste posible litzateke Foru hauteskundetarako?

Ni, EAko militantea naiz, zuzendaritzako arduetatik erretiratua, baina uste dut NA-BAIk ezinbesteko indarra izan behar duela Nafarroaren etorkizun politikoan. Gainera Uxue Barkos Nafarroako ordezkariarik hobereena da eta hori igarri egingo da. Uste dut EAren zuzendaritzak ere horrela ikusten duela eta alderdiek arduraz jokatzeko jakingo dutela. Eta "independentek" deitutakoek alderdien lana ulertzen jakingo dutela beraien lan iraunkorra errespetatuz eta ez hauteskunde garaian bakarrik egiten dena.

“Euskal herritarren gehiengoa PPK eta PSOEk nahi duten moduko autonomia batekin asetuta geldituko dela uste duenak ez du gizarte hau ezagutzen”

Baina antzeko zerbait EAerako pentsatzea, hori zailagoa da?

Egoerak ez dira alderagarriak. D'Hont sistemak Nafarroan, EAEn ez bezala, botoak bidegabetzen ditu, eta elkarlanerako formula ezberdinak azkeneraino eramaten ari dira EA eta EAJ; EAren kasuan, alderdi independentziak eta sozialdemokrata izaera neurri batean galtzeko arriskuarekin.

Garaikoetxea jauna, Euskal Herriko gertuko historiaren lekuko bizia zara... Auskalo oraindik zer ez duzun kontatu... Dakizuna jakinda, bizi izan duzunarekin, tunelaren amaieran nolabaiteko argia ikusteko momentuan egon gaitzkeela uste duzu, una aprobetxatzen jakinez gero?

Nik badut itxaropena, biolentziaren arazoa edo abertzaleen arteko zatiketarena laster konpondu ikusteko, Madrili baino ez baitio onik egiten. Baina ez gaitzean engainatu: Euskal Herriaren eskubide nazionalen onarpen erabatekorantz egin beharreko bidean tradizio zentralistetan nagusi diren Estatuek krisi une oso larriak izango dituzte guretzat prestatuta, eta gaur aurrez aurre dugu horietako bat. Etorriko dira beste batzuk ere, baina historia zehar era miragarrian iraun duen herri batek jakingo du ekin honetan aurrera egiten; eta gaur sekula baino inguru demokratikoagoan bizi gara, Europa lekuko dela, prozesu historiko azkarrarekin... Niri askoz ere zailagoa iruditzen zitzaidan Berlingo harresiaren erortzea eta ondoren ekarri zuen gutzia.

Maddalen Iriarte
Kazetaria

IVAPeko estilo-liburu berriak

Zortzi urte joan dira, IVAPeko lehen estilo-liburua argitara eman genuenetik, eta tarte horretan mundua ez da geldirik egon eta gu ere ez. Euskaltzaindiak gomendio berriak plazaratu ditu; garai hartan oso erabiliak ziren dokumentu batzuk zaharkituta dautza dagoeneko, eta horien ordeaz, beste batzuk sortu ditugu; gure argitalpenei eta ikastaroei esker eskarmentua hartu dugu: guk ere aurrera egin dugu.

Ezagun da IVAPek konpromiso sendoa hartua duela kalitatearen alde, eta, gure ustez, komunikazioa da kalitate horren ispilu eta erakusbiderik behinena; komunikazioa erakundearen barruan, bai; baina, batez ere, herritarrekin jardun behar dugunean.

Bada, kalitatezko komunikazio hori bermatzeko, estilo-liburu berri hauek prestatu, eta zuen esku jarri nahi izan ditugu. Bai, ondo irakurri duzue: “estilo-liburu berri hauek”; izan ere, oraingoan bi liburu kaleratuko ditugu: bata euskaraz, eta bestea gaztelaniaz.


Egia da orain arteko gomendio eta proposamen guztiak euskaraz egin dituela IVAPek; baina egia ere bada Administrazioiko testu asko eta asko gaztelaniaz idazten direla lehenengo, eta euskarara itzultzen gero. Gauzak horrela izanik, erdal testuak markatzen du euskal itzulpenak izango duen egitura, estiloa eta itxura. Horrenbestez, euskara hobetu nahi badugu ezinbestekoa da sorburu hizkuntzaren kalitatea ere hobetzea, gure kasuan, erdararena. Horrek ez du esan nahi erdal testuen euskarazko itzulpena aldarrikatzen dugunik, ez eta gutxiago ere. Gure ustez, hizkuntza biek maila berean egon behar dute, eta horregatik korredakzioaren aldeko apustu garbia egin dugu.

Hatsapen horretatik abiatuta argi dago liburu bat ezin izan zitekeela bestearen itzulpena; aitzitik, liburu bakoitzak bere nortasuna dauka, eta hizkuntza bakoitzari dagozkion aholku, eredu eta argibideak dakartza; modu arin eta ulergarrian azalduta, gainera.

Liburuek zazpina atal dituzte:

IDAZKETA-PROZESUA. Atal honetan testuaren egituratze-lanari begiratu diogu; alegia, zertzuk egiten ditugun orri zuriari aurre egiten diogun unetik, testua amaitutzat ematen dugun arte.

GRAMATIKA. Lehen ataleko gomendioak aintzat hartu badiugu, testu **egituratua** izango dugu esku artean; baina kalitatezkoa izateko, **zuzena** behar du izan. Nolanahi ere, kapitulu honetan ez ditugu gramatikako arazo guztiak deskribatuko, baizik eta hizkuntza batean eta bestean arazoak sortarazten dituztenak: ortografiako kontuak, deklinabideko akatsak, zenbakien idazkera...



ESTILOA. Orain testua **egituratuta** dago, eta gainera, gramatika aldetik, **zuzena** da; hala ere, testuak, kalitatezkoa izango bada, **argia, jatorra** eta herritarrek **ulertzeko modukoa** izan behar du; eta ez ulergaitza, gaur egun Administrazioak kaleratzen dituen idazki gehienak bezalakoa.

DISEINUA. Dagoeneko testua **egituratuta** dago, **zuzena** da eta **hizkera argian** idatzita dago; hala ere, erabateko kalitatea izateko, **erakargarria** izan behar du; eta horretarako, ondo zaindu behar dugu diseinua. Ezin dugu ahaztu orrialdeak begientzako irudiak direla, eta irudiek komunikazio indar handia dutela.

ZUZENKETA. Orain arte egindako ahalegin guztiek porrot egin dezakete, ez badugu idazkia behar bezala berrikusten eta zuzentzen, hartzaileri bidali aurretik edo argitara eman baino lehen. Eta “zuzenketa” diogunean, ez pentsa ergatiboari edo komunztadurari buruz ari garenik, baizik eta idazketa-prozesuan egin daitezkeen hanka-sartze guztiei buruz.

IDAZKIAK. Gure erakundearen gehien erabiltzen diren dokumentuak (30 baino gehiago) aurkeztu ditugu: euskaraz batzuk, eta ele bietan besteak.

OSAGARRIAK. Azken atal honetan IVAPeko langileentzat lagungarria izan daitezkeen bestelako informazioa bildu dugu, hala nola: EAEko udalerrien izen ofizialak, laburtzapenen eta administrazioiko terminoen hiztegiak, eta abar.

IVAPeko estilo liburuak IVAPERako daude diseinatuta, eta gure erakundearen izango dute eragina bertan esandakoek; dena dela, ziur gaude lagungarri izango zaizkiela Euskal Herri osoko makina bat administrazioari. Hona, bada, gure eskaintza, euskara eta erdara onean egin nahi duzuen gutzientzat, eta bereziki, *Administrazioa euskaraz* aldizkariko irakurleontzat. Hitz batean, izan bedi egia gure mahaiko egutegiak dioena: “Nik Administrazioan ere euskaraz”.

IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atala
Jose Mari Arakama, Aintzane Arrieta,
Joseba Lozano, Josemari Robles, Rosa Mari Urrutia

Estatutuak 25 urte

Itzalean ez, inguruan, ondoan, alboan ikusi ditugun pertsona ugari ere izan dira 25 urte hauetan. Lehendakariak egon ez direnean, lehendakari, baina, hala ere, urratsak neurtuz edo, diskreto. Lehendakariari berari indar eman nahian bezala, beraien presentzia eta, batez ere, lanarekin eguneroko bultzadan. Euskal Kontseilu Nagusiaren ondoren, hauteskunde batzuen osteko lehenengoa Mario Fernandez izan zen. Emakume batek bete du azken urteotan aulki hori, Idoia Zenarruzabeitiak. Lehendakariordeak dira.

Jon Azua, Ramón Jauregui eta Mario Fernandezekin egon gara gu.



JON AZUA:

“Uste dut lehenengo urratsa ematea, benetako urratsa ematea, ETari, PSOEn Gobernuari eta Batasunari dagokiela, eta seguru aski, ordena horretan, gainera”

Nola gogoratzen duzu Euskal Autonomia Erkidegoan autonomia abian jarri zeneko garai hura?

Ilusio handiz gogoratzen dut. Ziurgabetasuna, ametsak, eta batez ere, ilusioa eta itxaropena... denak nahasian bizi genituen. Egoera oso pozgarria ez bazen ere (krisi ekonomikoa, diktadura, ETA...), estatutu berria eta autogobernu hasi berria besarkatu genituen, erronka izugarritzat aurkezten zitzaigun bide bati ekiteko.

Garaikoetxea lehendakariak Agirre lehendakariaren “irudi historikoaren oinordeko” zela zirudien, eta demokrazian gure etorkizunaren protagonista ginela uste genuen. Nik hasierako lan taldeko kide izateko aukera izan nuen. Gure lanaz ezer gutxi genekien: gobernu bat osatzea. Borondateak, ahaleginak, eta konpromisoak gainditu egin zuten jasotako herentzia administratiboa; begiak ireki genituen, esperientzia ugari ikasi, jendearengana hurbildu eta benetako arazoei, sarritan arazo korapilotsuei, aurre egin genien. Egoera konplexua, aberatsa, oso pozgarria, abiapuntua eskasa izan arren: baliabideak urriak ziren; lanean iraunkortasun eza zen nagusi; zalantzak, gehiegizkoak; baina konpromiso pertsonala, handia.

Zer balorazio egiten duzu egindako bidez?

Benetan iruditzen zait balantzea oso baikorra dela. Ametsak eta errealtatea aurrez aurre jartzen baditugu, leizea handia da oraindik. Baina ebaluazio objektibo bat egiten badugu, abiapuntua zein zen kontuan izanda eta lortutako garapen maila, ongizatea eta berreskurapen identitarioa aintzat hartuta, uste dut zoriontzeko moduan gaudela eta harro sentitu behar dugula egindako bidez.

Gaur Euskadik toki pribilegiatu bat betetzen du munduan. Eta honek urrats kualitatibo eta erradikal bat emateko aukera ematen digu, guztiontzat bizi baldintza hobekak lortzeko, autogobernu gehiago lortzeko (gure ongizatearen ardatza), eta, azken batean, etorkizunak ekarriko dituen erronka eta aukera berriei aurre egiteko. Balorazio objektiboa Nazio Batuen Giza Garapenaren Indizearen esku utziko dut. Errenta tasak, enplegua, goi mailako eskolaratzea... INE, CAIXA edo BBVA bezalako erakundeen esku eta ideologia alde batera utzita egoerak baloratzeko gai direnen esku. Damu naiz, ordea, bakea eta herriaren normalkuntza lortzeko gai izan ez garelako. Nolanahi ere, uste dut hori lortzeko giltzarria ez dela sekula euskal erakundeen esku egon. Beste batzuk izan dira protagonista zuzenak, eta haiek erraztu dezakete eta erraztu behar dute egoera.

Zu lehendakariorde izan zinen Ardanza lehendakariarekin. Nola bizi izan zenuen garai hura?

Lehendakariorde gisara egindako urteak barne pozik handiena-edo eman didatenak izan dira. Zailtasun, tentsio eta lanez gainezka gogoratzen ditut. Krisi ekonomiko larri bati egin behar izan nion aurre: euskal ekonomiak azken 40 urteetan jasandako krisirik latzena; gizartea larriki asaldaturik zegoen, eta gure ekonomia eta gure banakako eta taldeko psikologia berbideratu behar genuen. Gurekiko onespene eza igarri egiten zen, komunikabideek zorrotz begiratzen ziguten, eta autonomiaren garapenean geldialdia gertatu zen. Dena dela, eta helburuetan ados egon gabe ere, proiektu eta politika aldatzaileetarako akordioak gauzatu genituen foru aldundi, udaletxe eta Euskal Autonomia Erkidegoko lau sindikatu nagusiekin, eta baita industrian eta ekonomian alda-

keta sakona bultzatzeko gauza ziren protagonistekin. Gizarteari begira hezkuntza, osasuna, ongizate soziala landu genituen, eta, oro har, proiektu enblematikoak burutu genituen, eraikitzen ari zen Europarekin bat egiteko. Merezi izan zuen. Gaur nire alderdiari, Ardanza lehendakariari eta nirekin lan egin zuten guztiei eskerrak baino ezin dizkiet eman ardura handiko gune horretatik nire herriaren alde lan egiteko ohorea izan nuelako. Baikorra naiz, herri honen etorkizunarekiko, eta hori da dudarik gabe saririk onena.

Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeen atarian gaudela, zer uste duzu gerta daitekeela?

Uste dut azken 25 urteotan izandako antzeko emaitzak izango ditugula, boto abertzaleak apur bat aurrera egingo duelarik, gainera. Nolanahi ere, hauteskunde sistema konfederalak, Batasuna zuzenean ez egoteak, parte hartuko duten beste aukera batzuen atzean dauden zalantzak... horrek guztiak lasai gobernatzeko aukera eman dezakeen gehiengo absolutua bertan behera utz dezake. Hala ere, ez dut posible ikusten, ezta



RAMÓN JAUREGUI: “PNV-PSE (1987–1998) koalizioaren urteak onenak izan dira Euskadiko historia demokratikoan”

Nola gogoratzen duzu Euskal Autonomia Erkidegoan autonomia abian jarri zeneko garai hura?

Oso oroitzapen biziak ditut trantsizio urte haietaz, gogo handiz bizi izan baintuen. Berrogei urte igaro ondoren, handiegia zen aldaketak sortzen zuen zirrara, erraz ahazteko. Garai hartako gure manifestazioen oihu bat dut gogoan bereziki, oso argi erakusten baitzuen frankismoaren aurkako aldarrikapena zein hiru ardatzen baitan biltzen zen: “Libertad, amnistía y Estatuto de Autonomía”.

Nire oroitzapenak bat egiten du euskal sozialismoak garai hartan izandako zereginarekin. Ez ginen asko, baina alderdi handia ginen euskaldunen memoria historikoan. Euskal sozialismoa Bizkaiko meategietan jaio zen XIX. mendearen amaieran, baina beti izan da, eta hala jarraitzen du izaten gaur egun ere, euskal aniztasunaren, pluralidadearen berme. 1936. urteko Estatutua egin genuen, eta lehen Eusko Jaurlaritzaren partaide izan ginen. 1936ko gerraren gobernuan izan ginen, eta atzerriko Eusko Jaurlaritzan eman genuen berrogei urte luze, 1979.era arte. Gero Konstituzioa egin genuen, eta ezkerria izan zen, nazionalismoa demokratikoarekin batera, Autonomia Estatutua baieztatzen zuena. Azkenik, Ramón Rubial izan genuen demokraziako lehen lehendakaria: erbesteko Eusko Jaurlaritzatik Euskal Autonomiarako bide eta zubi demokratikoa. Memoria historiko hori

desiragarria ere, PP eta PSOE-EEren arteko konbinazio bat. “Batu” daitezke artifizialki, baina huts egingo lukete eta txarra izango litzateke ez herriarentzat bakarrik, baita beraientzat ere epe erdi eta luzera.

Dena den, ondorio instrumentalez gain, gobernuaz gain, uste dut garrantzitsua biharamuna izango dela: nola aurrera egin Eusko Legebiltzarrak ezarritako bidean Estatutu Politiko Berriarekin? Legebiltzarrak eskaera berri bat onartu du, garai berriak, erronka berriak. Zailtasuna da hori egi bilakatzea, praktikan jartzea. Uste dut etorkizunak, eta ez Euskadin bakarrik, askoz ere antz handiagoa izango duela Estatutu Berriarekin egungo egoerarekin baino. Baina, epe labur eta ertainera, oztopo asko, inbibilismo handia eta sekulako zarata izango ditugu. Uste dut lehenengo urratsa ematea, benetako urratsa ematea, ETari, PSOEren Gobernuari eta Batasunari dagokiela, eta seguru aski, ordena horretan, gainera. Batzuek, askok, benetan lagundu egin nahiko digute. Beste batzuek, gutxik, trabak jartzen jarraituko dute. Edozein kasutan, denbora kontua dela uste dut. Espero dut berandu baino lehen izatea. Guztion onerako.

guztia bizi-bizi azaleratu zen 77ko lehen hauteskundeetan, eta beti izan garen alderdi handia bilakatu ginen.

Zer balorazio egiten duzu egindako bideaz?

Autonomiaren ikuspegitik, nik uste Euskal Herriak historian sekula izan ez duen autogobernu maila lortu duela. Euskadi, Gernikako Estatutuari esker, komunitate politiko bihurtzen da, eta bere autogobernua, aurreko garaietakoekin alderatuta –sistema forala barne– inoiz baino handiagoa da. Orain oso ohikoa da nazionalista batzuei entzutea Autonomia Estatutua iruzurra izan dela eta halako batzuk, baina zera esatera ausartzen naiz: hori esaten dutenetatik, 1979an batek ere ez zuela amesten gaur daukagunarekin.

Egia da elementu kontrajarriak ere badirela aldi horretan. Baten bat aipatze aldera, nik esango nuke Estatuko gobernuan inertzia zentralista batzuk egon direla, eta baita prozesu autonomikoa orokortzeak ekarritako hainbat lurralderen arteko tirabirak ere. Baina egia da, era berean, nazionalismoak jarrera fundamentalistak erakutsi dituela Estatutuaren interpretazioan, eta jarrera horiek eragotzi egin dute zenbait akordio lortzea Estatutua hedatzeko.

25 urte hauetako balantzearen bi elementurik kaltegarrienak, nire iritziz, terrorismoaren iraunkortasuna, eta EAJ-EAk Gernikako Estatutua hiltzat emanez hartutako erabaki larria dira;

azken batean, apurtu egin dute Gernikako Estatutuak zabaldua-ko identitate ezberdinen arteko topagune zabala. Lizarrako Itunak eta Ibarretxe planak osatu duten azken sei urteotako politikak eraikuntza nazionalen atzera baino ez du egin, euskal gizartean haustura zabala sortzen ari baita.

Jauregui, jauna: zu lehendakariorde izan zinen Ardanza lehendakariarekin. Nola bizi izan zenituen urte haiek?

Garai zaila izan zen, baina aurrerapenez josia. Zaila, lana ikaragarria izan zelako, eta negoziaketak oso gogorak eta amaigabeak. Baina, era berean, herriak sekula ez bezala egin zuen aurrera, eta analisiaren subjektibitatea baldintzatu dezakeen nostalgian harrapatu-ri nagoela onartzen badut ere, ez dut uste huts egiten dudarik esaten badut PNV-PSE (1987-1998) koalizioaren urteak onenak izan direla Euskadiko historia demokratikoan.

Bost ezaugarri nagusi aipatu ditzaket aldi hura marrazteko:

Lehenengoa: demokrata guztion batasuna terrorismoaren aurka, hori guztia Ajuria Eneko itunaren babesean.

Bigarrena: koalizioaren aniztasun identitarioak; horrek bide eman zion euskal gizartearen ezaugarri berezia den aniztasunari. Garai haietakoak dira Arriagako hitzaldia “Euskaldunak denok gara...” eta Ardanzaren diskurtso politikoa euskal herritarren nahi identitario ezberdinen ingurukoa.

Hirugarrena: koalizioa osatzen zuten alde bietako moderazioa eta negoziazio iraunkorra: euskara, hezkuntza, gizarte politika, funtzio publikoa, sinbologia... dena paktatzen zen, batzuek eta besteek hainbat gauza alde batera utziz. Euskal nazionalismoak beti

onartu zuen gure ordenamendu juridikoak, Konstituzioa eta Estatutuaren bidez, xedatutako esparru politikoa.

Laugarrena: 1993. urteko krisia alde batera utzita –hark sekulako enplegu beherakada ekarri zuen (%23ko langabezi tasa)–, 1986 eta 1998 urteetan hazkunde ekonomiko izugarria eta garapen sozial ikaragarria gertatu ziren Euskal Herrian. Europar Batasunean sartzeak Barne Produktu Gordinarekin hazkunde %5era eramanean zuen. Birmoldaketa industrialaren amaierak, zaharkitutako euskal sare industrialari hain gogor eragin zionak, XXI. mendean lehiakor izateko beharrezkoa zen aparatua prestatu zuen. Azkenik, Kupoaren inguruko akordioak baliabide ekonomiko eta finantzierokoak ekarri zituen, eta horrela, gure garapen maila beste edozein autonomia erkidegorena baino handiagoa izan zen.

Bosgarrena: gainera, garai hartan, berealdiko garapen autonomikoa gertatu zen, besteak beste 80. hamarkadaren amaieran gauzatu zirelako eskumen garrantzitsuen inguruko akordioak, hala nola, Osakidetza, Ertzaintza eta Kontzertu Ekonomikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan hauteskundeetan aurrerari gaudela, zer uste duzue gerta daitekeela?

Hauteskunde garrantzitsuak dira, baina ez dugu ahaztu behar bizitzak aurrera jarraitzen duela. Plebiszitu kutsua dute, euskal politikagintza bide gurutze batean baitago gaur egun. Ez dugu ahaztu behar 1998. urtetik aurrera EAJ-EAk nazionalisten arteko paktua estutu dutela, oraingo honetan Espainiarekin atxikipen libreko soberanismo lauso batean oinarrituta, baina bihar-etzi independentziara iristeko asmoarekin.

Apirilaren 17ko hauteskundeek bide bikoitza zabalduko digute: alde batetik, nazionalisten bidea, eta, bestetik, autogobernuan aurrera egiteko bidea emango diguna. Azken hori, estatutu berritzea alegia, da PSEren asmoa, Jose Luis Rodríguez Zapaterok bere egin duena. Azken finean, independentziaren alde epeka egiteak herria hautsi baino ez du egiten, bere lurraldeak zatikatu eta bere aniztasun identitarioa suntsitu. Irteerarik gabeko bidea da: inora ez doan bidea.

Hala ere, esperantza bat daukat: PSE berriro ere euskal politikan giltzarri izatea, eta kombibentziari irtenbide bat emateko modua berreskuratzea.



MARIO FERNANDEZ:
“Estatutuak autogobernu maila handia onartzen zuen, baina ezin izan zen sekula indarrean jarri, batzuek ukatu egin baitzuten apropos”

Nola gogoratzen duzu EAEn autonomia martxan jarri zeneko garai hura?

Lehenengo oroitzapena ilusioarekin oso lotuta dago. Eta ilusio horrekin bat egiten du garai hartan genuen ardura handiak, izan ere, gure egoera ez zen Gobernu aldaketa batek sortzen duena, abian jarri beharreko administrazioa batek dakarrena baizik. Gure kasuan ez zegoen ezer ere; hutsetik hasi behar izan genuen: organigramak egiteko jendea bilatu, bulegoa edukitze-ko lekua aurkitu... Mundu guztiak gogoratzen du Lakuako erakineria joan arte, Gasteizko hotel bateko gelan aritu ginela lanean.

Bestalde, autogobernuaren hasiera eta herriak bizi zuen egoera sozio-ekonomikoa oso zaila izan zen. Euskadiko sektorerik garrantzitsuenak krisian zeuden edo krisi mehatxua argia zen; gizartearen ikuspegitik jasangaitza zen langabezia kopurua. Esan beharra dago hasiera hura oso zaila izan zela, eta ardura, oso arriskutsua. Momentu hartan huts egiteak eragina izango zuen herriaren autogobernu nahian, guk huts egitea nahi zuten sektoreek hori azpimarratuko baitzuten.

Zer balantze egiten duzu gaur arteko bidez?

Nik uste dut oso positiboa izan dela. Gogoratu behar da, gainera, lehen aipatu dudan egoerari gehitu behar zaiola Estatutu falta, Kontzertu Ekonomikoarena eta, beraz, aurrekontuen falta. Hau guztia esanda eta balantzea baikorra izan dela berretsiz, nahitaez esan beharra dago, hasierako momentua gaindituta eta agintari eta alderdi espainiarrek zegozkien adierazpenak egin ondoren –batzuek sekulako katastrofeak aurreikusiz gainera–, berehala estatutuaren ezkutuko erreformari ekin ziotela, esku-menak ukatuz, edo erabat aldatuz, lege organiko edo lege basi-koak erabiliz.

Askok bazterrak nahastu nahi badituzte ere, argi esan liteke Estatutuak autogobernu maila handia onartzen zuela, baina ezin izan zela sekula indarrean jarri, batzuek ukatu egin baitzuten apropos.

Zu lehendakariorde izan zinen Carlos Garaikoetxearekin. Nola gogoratzen dituzu urte haiek?

Ez da erraza lehengo bost urte haiek laburbiltzea, lehen aipatu dudan egoera tarteko. Oso arduratuta geunden krisi ekonomikoarekin, abian jarritako bideak huts egiteko arriskuarekin; baina, bestalde, pozik geunden herritarren arazoei irtenbideak

emateko moduan ginelako. Euskal administrazioaren jokabidea-gatik izan ez balitz –foru aldundiak barne–, herri honen aurrerapen ekonomiko eta soziala ez zen inoiz gauzatuko.

Nolanahi ere, ezin dira ahaztu Otsailaren 23a (23F), LOAPA, Estatutuaren garapenari behin eta berriz jarritako oztopoak, sekula lortu ez bada ere, behin eta berriz Espainiako Estatuko gainerako autonomia erkidegoekin berdintzeko ahaleginak, gure ezberdintasun bakarra txistua eta danbolina zirela esatea...

EAEn hauteskundeetan atarian gaudela, nola ikusten duzu gertuko etorkizuna?

Gauza bat da nahia eta beste bat ustea. Dena den, eta hasteko, esan beharra dago demokratikoki onartezina dela aukera politiko bati hauteskunde horietan parte hartzeko aukera kentzea.

Nire ustez –errespetu osoz esaten dut–, hauteskunde hauetan bi aukera besterik ez dago: Madrilgo sukurtsal diren alderdiek ordezkatzeko dutena, eta EAJ-EAk ordezkatzeko duena. Seguru nago herritarrek argi izango dutela autogobernuak ongizatea dakarrela, garapen ekonomiko eta soziala, eta horretarako inguruetara begiratzea baino ez dago konturatzeko EAE gaur egun Europar Batasuneko seigarren herria litzatekeela horri dagokionez. Ikusi da, beraz, 25 urte hauetan Gernikako Estatutuarekin lortutakoa.

Horrenbestez, nik uste herri honetako biztanleek honelako gobernu baten alde egingo dutela: beraiek erabakitzen dutena defendatuko duen gobernu. Ikusi egin beharko da, ordea, kuantitatiboki zer eragin duen; izan ere, Europar erreferendumean gertatutakoak argi erakusten du neurtzeko era ezberdinak erabiltzen direla: gustatzen zaizkigun gauzetarako bat, eta gustatzen ez zaizkiguneratako beste bat.

Herriak bide hori hautatzen badu, negoziaketa bat beharko da erlazio berria juridikoki nola gauzatu daitekeen aztertzeko; ongi ulertutako negoziazio bat noski, ez Europar Batasunean aspaldian esaten dena: Komisio bati zaldia marraztu dezala eskatu, azkenik marrazkian dromedario bat ikusteko. Kotsentsuaz hitz egiten denean, sarri, beto eskubidez, inork inori eman ez dion eskubidez pentsatzen baita.

Maddalen Iriarte
Kazetaria



Mundua online

Elkartasun digitalaren funtsa

Euskadiko Autonomia Erkidegoa ekimen honen sorreran parte hartu duten hamazazpi bazkide fundatzaileen artean dago, eta berarekin izan dira Europako beste zenbait hiri eta eskualde: Paris, Lyon, Erroma eta Akitania, besteak beste. Nazio Batuen Erakundeak babestutako ekimen hau martxoan sortu zen, Geneva, eta munduko zonalderik pobreenetan “zulo digitala” delakoa saihestera zuzenduta doa, beti ere demokrazia elektronikoari laguntzeko.

Proiektu honi esker, enpresetako ideiak eta teknologia berriekin zerikusia duten prestakuntzako ekintzak finantzatu ahal izango dira, fondo ekonomiko bat sortu baita sektore publiko eta pribatuen borondatezko ekarpenekin. Eusko Jaurlaritzak, gainerako beste kide fundatzaile guztiek bezala, 325.000 euroko ekarpena egin du. Plangintza honek Europa, Latinoamerika eta Afrikako toki-erakunde eta gobernuak batzen ditu.

Bildutako laguntzen %60 hirugarren mundura zuzendu da, %30 azpiegitura ertainak dituzten herrialdeetara, eta %10 herrialde pribilegiatuagoetako proiektuetara.

<http://www.dsf-fsn.org/>

Luis Elizondo
l-elizondo@ej-gv.es

EAS, Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema

EAS tresna berri bat da euskararen egoerari eta bilakaerari buruz informazioa eskuratzeko. Informazio hau ezinbestekoa da dagoeneko abian diren hizkuntza-politika eta ekimenen gorabeheren berri izateko, eta, ondorioz, hobetu beharreko neurriak hartzeko. Webgunean sartuz gero, bi modu ditugu kontsultak egiteko: gaika eta udalerrika. Gaika eskatuz gero, bost eremu nagusi hauek agertuko zaizkigu: testuingurua, baliabideak, lege-garapena, esparrukako programak eta emaitzak. Udalerrika eskatzen badugu, orduan, udalerrri baten egoera soziolinguistikoa ezagutzeko aukera izango dugu.

Helbidea: www1.euskadi.net/euskara_adierazleak

Mokoroaren esapideak Interneten

Justo Maria Mokoroak bildutako euskal esapideak eta lokuizioak (92.147) sarean ditugu Hiru.com webgunean, Hezkuntza sailaren Etengabeko Ikaskuntzaren atarian. Lana, “Ortik eta Emendik”, Labayruk argitaratu zuen 1990. urtean, eta orain Code Syntaxek atondu du argitalpen digitala. Hemen-dik aurrera, bilatzaile baten bidez, nahi dugun esapidea aurkitzeko moduan izango gara. Bilaketa euskaratik edo gaztelaniatik egin daiteke eta iturriaren zein euskalkiaren arabeko filtroak ere egin daitezke.

I tzulpengintza eta Interpretazio Jardunaldiak

Apirilaren 8an izan ziren Itzulpengintza eta Interpretazio Jardunaldiak, Madrilen, Expolingua erakusketaren 18. edizioaren barnean. Itzulpen eta interpretazio lanetan aritzen diren enpresa, unibertsitate eta erakunde askotako adituak bildu ziren, arlo honetako alde asko sakon aztertzeko: Europar Batasunaren itzulpen arau berria, mikroenpresak, teknologiaren azken belaunaldia, lanbide aukerak, merkatu azterketa, itzulpen automatikoak, administrazio elebidunaren esperientzia... Azken gai hau Eneko Oregik, IVAPeKo Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko arduradunak azaldu zuen.

4th International Conference on Third Language Acquisition and Multilingualism

Lehenengo Biltzarra Innsbruck-en izan zen 1999an, bigarrena Ljouwert/Leeuwarden-en 2001ean, eta, hirugarrena, Tralee-n 2003an. Oraingo Biltzar hau Suitzako bi hiritan izango da, bi hiri elebidunetan: Fribourg/Freiburg-en eta Biel/Bienne-n, 2005eko irailaren 8tik 10era. Aztergai nagusia izango da: bi hizkuntza baino gehiago ikasteak zein eragin duen ikaslearengan, irakaskuntzan, itzulpengintzan, familian, gizartean eta, oro har, kulturaren. Izena emateko azken eguna: 2005eko ekainaren 25a. Informazio gehiagorako sartu webgune honetan: www.irdp.ch/13

www.udaleuskaltegiak.net

Gipuzkoako Udal Euskaltegiek webgune berria dute: euskaltegiei buruzko informazioa, ikasleen txokoa, helbide interesgarriak, albisteak eta testak biltzen ditu. Euskaraz eta gaztelaniaz dago.

Ahoz egiten ditugun kalko zenbait¹

Errazkeriaz-edo egiten dugu: baztertu geure esateko erak eta erdarazkoak hartu. Eta, nahiz eta jakin badakigun ez direla euskara, barra-barra botatzen ditugu. Hona hemen sintaxia erruki gabe erasotzen duten kalko horietako batzuk:

■ **↓ Bakarrik esan, ↓bakarrik esatea**

Gaztelaniazko forma okerra hartu dugu oraingoan. Gaztelaniaz honi “informativo radiofónico” esaten diote eta elipsi oker bat da: **Para terminar sólo añadir...* [quiero / me gustaría añadir].

↓Ez dut hiztegi honi buruz gehiegi hitz egingo; **bakarrik esan** eskoletan erabiltzeko oso-oso egokia dela.

Ez dut hiztegi honi buruz gehiegi hitz egingo; **bakarrik esan nahi dut** eskoletan erabiltzeko oso-oso egokia dela.

■ **Es que**

*Ez naiz zortzietan iritsi; **eske** autobusak hanka egin dit.

Ez naiz zortzietan iritsi, autobusak hanka egin **dit-eta**.

Ez naiz zortzietan iritsi, **ze** autobusak hanka egin dit.

*Josune izendatu dute arduradun; **eske** bera da egokiena.

Josune izendatu dute arduradun; **izan ere**, bera da egokiena.

■ **Según**

*Erronka honi **según eta nola** erantzuten diogun, halako etorkizuna izango dugu.

Erronka honi **nola** erantzun, **halako** etorkizuna izango dugu.

■ **En cambio**

*Ostiraletan jendez gainezka egoten da, **en cambio** igande goizean joaten bazara, ez dago inor.

Ostiraletan jendez gainezka egoten da, **baina** igande goizean joaten bazara, ez dago inor.

■ **Si**

*Eta zu txistua jotzera zoaz? **Si** ez dakizu putz egiten ere!

Zu txistua jotzera zoaz? Putz egiten ere ez dakizu **eta!**

■ **Ya**

*Jo, ama, **ya** bagoaz? Nik ez dut nahi!

Jo, ama, bagoaz? Nik ez dut nahi!

Jo, ama, bagoaz **dagoeneko**? Nik ez dut nahi!

■ **Ya que**

*Denbora exkaxa egiten du, baina **iake** jatekoa prest daukagun, joan egingo gara Oizera.

Denbora exkaxa egiten du, baina jatekoa prest **daukagunez**, joan egingo gara Oizera.

Denbora exkaxa egiten du, baina jatekoa prest daukagu **eta** joan egingo gara Oizera.

■ **O sea que, así es que**

*Nik lehengo astean ekarri nituen; **oseake** oraingo astean zuri tokatzen zaizu.

Nik lehengo astean ekarri nituen; **beraz/orduan**, oraingo astean zuri tokatzen zaizu.

■ **A ver**

*Hainbeste euri, hainbeste euri... **Aber** datorren astea hobetxoagoa den!

Hainbeste euri, hainbeste euri... **Ea** datorren astea hobetxoagoa den!

■ **Aunque**

*Erosiko nizuke liburua, **aunque** zuk erosten baduzu, hobe.

Erosiko nizuke liburua; **hala ere**, zuk erosten baduzu, hobe.

Erosiko nizuke liburua; **baina** zuk erosten baduzu, hobe.

■ **Entre que**

*Bai, joango nintzateke Kukubiltxo ikustera; baina, **entre que** umeak prestatu eta Lekeitiora joan... beranduegi egingo zaigu.

Bai, joango nintzateke Kukubiltxo ikustera; baina, **orduak aurrera doaz**, eta umeak prestatu eta Lekeitiora **goazen bitartean**... beranduegi egingo zaigu.

IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atala
Jose Mari Arakama, Aintzane Arrieta,
Joseba Lozano, Josemari Robles, Rosa Mari Urrutia

¹ Artikulu hau *IVAPeko estilo-liburu*-tik ateratako kapitulu baten laburpena da; badakizu, beraz, nora jo, oso-osorik irakurri nahi baduzu: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *IVAPeko estilo-liburua*. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2005.

Blogen buztan luzea

Blogak, blogak, blogak. Modako kontzeptua. Argitalpen azkarreko Interneteko webgune eredu. Albiste eta nobedadeak komentatzeko, primerako eredu. Zenbat blog euskaldun ote gaur? Atzo baino gehiago, eta bihar baino gutxiago.

Galduko gara informazio itsaso horretan? Ez ote da gauza gehiegi egongo Interneten irakurtzeko, jakiteko? Beharbada bai. Blog euskaldun guztiak egunero irakurtzerik ez da posible, bederen, termino humanoetan. Baina bai termino robotikoetan: 2005. urtean martxan jarritako ekimen berri batek, Aurki.com-ek, blog euskaldun guztiak irakurtzen ditu, etengabe, eta haien azken nobedadeak antolatzen ditu albistegi kolektibo automatiko batean: Aurkik, gainera, blogen irakurketa harpidetza bidez egitea ahalbidetzen du, eta hori inportantea da, harpidetza bidezko irakurketa.

Ikusi dugu, adibidez, blogariren batek kezka zuela bere bloga bakartuta ez ote zegoen; monoblogoa ote zen bere jarduna. Beharbada bai: blog pertsonal bakoitza hedabide bat da, baina irismen txikiko hedabidea.


Hala ere, ez du horrek inporta: irakurleagoaren eskasiak bost axola. Azaltzen saiatuko naiz jarraian.

Denok ezagutzen dugu 20. mendean mass-mediaren eragina sinbolizatzen etorri zen esaldi famatu hura, Andy Warholek esana: *Etorkizunean denok izango dugu 15 minutuko espea*. Asmatu zuen Warholek. Mass-mediaren biderkatze eta irismen populista bazter guztietara iritsi da, eta gutako edozein txotxolok du aukera (eskubidea, esan genezake) telebistako talk-show estupido batean azaltzeko, Klaudio Landak elkarriketa gaitzan. Bai, nire mutilaguna transexuala da eta gus-tura onartzen dut.

Baina orain 21. mendean bizi gara, eta mass-mediak barik, Internet dugu artikulu honetako gaia. Paradigma aldatu da. Ez du balio Warholen predikzioak. Beste bat da gaurko profetia fetitxea: *Etorkizunean denok izango ditugu 15 harpidedun*.

Halaxe da, bai. Gutako edozein hedabide bihurtzen denean, bakoitzak bere mikro-audientzia izango du. Gure lagunek, gure etsaiek, gure seme-alabek irakurriko gaituzte... Geuk ere harpidetza batzuk jarraituko ditugu, ez beharbada masiboak, soilik guretzako inportanteak direnak.

Blogen audientzian, sareko beste alor askotan bezala, buztan luzearen kontzeptuak funtzionatzen du. Interneteko egia estatistiko bitxi bat da hau, *The Long Tail* esaten zaio ingelesez. Adi grafiko honi:



Salmenta aukerak merkatu jakin batean. Horixe adierazten du grafikoak: produktu salduenak, ezkerrean, asko saltzen dira. Katalogoko lau produktu salduenak milaka ale saltzen dituzte. Baina katalogoa luzatu ahala, bateko eta beste aleak dozenaka edo banaka saltzen dira. Denda batean halako katalogoa gobernatzerik ez dago: asko saldu daitezkeenak bakarrik izan daitezke baldetan. Besteekin baldak okupatzea, dirua galtzea da.

Interneten, aldiz, katalogoa infinitoa da. Datubaseak ez dira baldak: aleek ez diote elkarri tokirik edo salmentarik kentzen salduenei. Eta, izatez, gutxi-gutxi saltzen diren milaka diskoen artean, askoz gehiago saltzen du Amazonek superventas horiekin baino. Interes generalistek merkatu handia dute, baina gizarte anitz batean, milaka lagunuen mikrointeres konbinatuek, merkatu handiagoa osatzen dute.

Informazioaren mundu editorialean ere berdin gertatzen da. Paperean edo ikus-entzunezko hedabide euskaldunetan, kirol informazioan, izan dezakegu informaziorik futbolaz eta txirindularitzaz, dudarik ez. Interes generalistak dira, badute berezko merkatu bat. Mendizaletasunak, ordea, juxtu-juxtuan du jarraipena. Bere interes maila, buztan luzearen grafikoaren alor ilun eta argiaren artean, hor nonbait behar du. Xakeak, berriz, ez du tokirik hedabideotan. Bere mikroaudientziak ez du justifikatzen. Grafikoaren alde argian dago xakelari euskalduna.

Interneten desberdina da. Interes anitzen merkatu anitza osa daiteke. Blogista bat behar dugu, ez besterik: xakeaz euskaraz idaztea okurrizten zaion bat. Eta izango du bere mikro-audientzia. Eta haren ondoan, beste hainbat mikro-hedabide, bakoitzaren mikro-audientziarekin. Horrelaxe osatuko da edukiaren euskal unibertsoa sarean. Behetik gora. Nola bestela? Nitxo bakoitza subentzionatuta? Euskal xakearen webguneari subentzio publikoa emanez? Errezil-sagarraren foroa Diputazioen babespean eratu?

Ez. Egin dezagun zerbait eutsigarria, barka, iraunkorra. Eman armak herriari: blogosfera osa dezaten herritarrek, euskaldun bakoitza blogatzera xaxatuz. Batzuek aukera aprobetxatuko dute, beste batzuek ez; baina gutako bakoitza (edo gure artean asko eta asko behintzat) hedabide bat denean, euskarazko informazioaren esparruak buztan luzearen antza izango du. Eta orduan, talde edo antolakuntza handiek barik, blogosfera anitz hori izango da nagusi euskarazko Interneteko komunikazio eta informazio esparruan. Gu izango gara nagusi. Gu, blogariok, 15 laguneko gure audientziekin.

Luistxo Fernandez
Interneteko enpresaria

HOSTO AHULAK

Karlosek utzi zuenetik egunak ordu gehiegitxo ditu Arantzarentzat. Lanetik etxerako bueltan ia egunero sartzen da supermerkatuara. Beti aurkitzen du aitzakiaren bat: azukrea falta duela, esnea falta duela... Etxera goizegi heltzea ez zaio gustatzen bertan Karlos aurkitzen ez duenetik. Erosketako poltsak hustu eta ia oharkabean heltzen zaio afaltzeko ordua, eta Arantzak hori nahi izaten du: ia oharkabean pasatzea denbora. Gero eta goizago iluntzen du eta Arantzak gogoko du neguko ordutegia. Eguna lehenago bukatzen dela iruditzen zaio eta ez du sentitzen goizegi oheratzen dela.

Baina gaur ez da supermerkatuara joan, ezta etxera zuzenean ere. Duela astebete iragarki bat ikusi zuen supermerkatuko taulan itsatsita. Lorezaintza ikastaro baten iragarkia zen, udalak antolatutakoa, astearte eta ostegun arratsaldeetan. Ideia ona iruditu zitzaion etxera beranduago heltzeko.

Ikasgelara sartu eta ez du berehala ezagutu. Ikastaroko irakaslea emakume eder bat da. Ile motza, beltzarana. Ezpainak gorritz margotuta ditu. Ikastarora hasi baino lehen inguratu eta *Kaixo, zu berria zara, ezta?* galdetu dio eta orduan bai, haren ahotsa entzutean ezagutu du. Monika da, txikitan ikaskidea izandakoa. Monika Etxabe. Nola ahaztu. Bata bestearen atzetik irakurtzen zituen egunero andereñoak euren izenak zerrenda pasatzerakoan. *Etxabe, Monika. Etxeberria, Arantza.*

Ikaragarria da. Arantzak ezin du sinistu. Posible al da pertsona bat hainbeste aldatzea? Klaseko neskarik lodiena zen Monika eta modelo ematen du orain. Kopeta tximurtuta *Arantza zara?* galdetu dionean lotsa modukoa sentitu du. Bat-batean burura etorri zaizkio Monikari txikitan, bere gorputza eta itxura zela eta, egindako trufa eta purrustada guztiak. Alazne Goitiaren lagun-taldekoa zen Arantza, eta Monika beti ibiltzen zen haien inguruan taldekoa izan nahirik, baina ihes egiten zioten denek, Alazne Goitiak esaten zuelako berak ez zuela behirik nahi taldean. Eta barre egiten zuten. Arantzak ere bai. Barre Alazne Goitiak esandako guztiari, haren hurrengo biktima izateko beldurrez.

Arantza zara? galdetu dionean argi geratu da Monikari ere kosta egin zaiola Arantza ezagutzea. Bera ere azken urteetan hainbeste aldatu den galdetu dio bere buruari eta bat-batean itsusi sentitu da. Monikaren ezpain mamitsu gorriegi begira, konturatu da ezpainak zurbil eta siku dituela berak.

Geranioei buruz hitz egingo diela aurreratu die eta aurrean duen landarea seinatu du zabalduetako eskuarekin. Geranioa landare gogorra dela esan du, zaintza gutxi behar dutenetakoa. Geranioaren hostoak ukitu ditu orduan eta Arantza

haren eskuei begira geratu da. Zaindu-zainduak ditu azazkalak, esmalte gardenaz pintatuta. Piano jole baten eskuak ematen dute. Inoiz ez zuen pentsatu Monika Etxabe polita izan zitekeenik. Baina emakume benetan ederra dela konturatu da.

Deseroso sentitu da Arantza. Gogora etorri zaizkio berriz kolegioko urteak eta Alazne Goitiaren ahots zorrotza: *Zer ari zara hor entzuten, behi hori?* Barre egiten zuten taldeko neska guztiak, berak ere bai. Eta orain bere burua barrez gogoratzeak min egin dio.

Segurtasunez hitz egiten die Monikak ikasleei. Egoera gogorretan hazten diren geranioak itxura politena hartzen dutenak direla esan die. Geranioa leku hotz, haizetsu eta euritsu batean kokatuz gero, bi gauza gertatu daitezkeela esan du: bat, landarea hiltzea, egoera kaskarra ezin gaitzuta, eta bi, beste edozein landare baino indartsuago haztea. Egoera

kaskarra gaitzuta gero, geranioaren hostoak indarrez haziko direla esan du. Babestutako lekuan jarrita, aldiz, geranioa ahulago haziko dela. Landarea hiltzeko arriskua dagoela gogoratu du, baina azpimarratu du ez dagoela iparraldeko haizeak jotzen duen lekuan bizirik irautea lortu duen geranio bat baino indartsu eta politagorik.

Klasea bukatzerakoan, Monika bera izan da lehena klasetik irteten. Presa du. Orduan Arantzak gizon bat imajinatu du emakume eder haren zain.

Itxi usaina hartu dio etxeari sartzerakoan. Neguko hotzak ez dio etxea behar bezala aireztatzen uzten. Ez du leihorik ireki azken bi egunetan. Bero-bera sarrerako pertxeroan zintzilikatu duenean, begiek alboan dagoen aterki-ontzira egin diote ihes. Han dago oraindik Karlosen aterki beltza. Ahaztuta utzi zuen gauzetako bat.

Logelara sartu eta zapatak kentzerakoan, leihoan duen geranio-ontziaren irudia etorri zaio burura. Leihoa ireki eta esku artean hartu du. Etxe osoa zeharkatu du geranioa eskuetan duela, egongelako balkoira heldu den arte. Iparraldeko haizeak gogor jotzen du balkoian eta horregatik ez du bertan landaririk izaten neguan. Balkoira irten eta geranioa haizeak gogorren jotzen duen lekuan jarri du, ertz batean. Gero, alkandoraren goiko aldeko lehenengo hiru botoiak ireki ditu, paparra agerian utziz, eta kaleko argiei begira geratu da geldidagorik, zirkinik egin gabe, eskuak balaustradan jarrita. Iparraldeko haize hotza zilbor ingurura sartu zaionean indarrez itxi ditu begiak.



Karmele Jaio
Idazlea

Zenbateraino da beharrezkoa jarduera komertziala arautzea, horren ondorioz merkataritza gune handiak ezartzea zaildu eta dendetako ordutegia murrizten bada?

Oraintsu aldatu dute dendetako ordutegiak arautzen dituen Legea. Horrek zeresan franko eragin du. Noren eskumena da? Noren eskariz aldatu dute Legea? Nori egiten dio mesede aldaketa horrek? Guk, kontsumitzaileok, badugu zeresanik horretan? Zein eragin izango du jaiegunetan ere dendak zabalik egoteak gure aisialdiko ohituretan? Honetaz eta hartaz jarduteko bildu ditugu hainbat lagun.



Jon Ariño Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa (EKE)

Merkataritza-ordutegiak arautzen dituen legea aldatu egin dute oraintsu; aldaketa horrek, urteko jaiegun batzuetan, kopuru jakin batean, saltokiak irekitzeko aukera arautu du, besteak beste; eta horrek eztabaida gogorra ekarri du neurri horren alde

eta kontra daudenen artean. Alde batetik, sindikatuak bezala merkatarien elkarteak ere lege berri horren aurka agertu dira, gogor, bai eta banaketa-sare handiak biltzen dituen ugazabak-
elkartearen aurka ere, nolabait sare horiek izan baitira saltokiak jaiegunetan irekitzeko presioa egiten ibili direnak.

Kontsumitzaileok, azken batean lege berri hori guretzat eginga baita, ikusle izan gara bi sektore horien artean piztu den borrokaren aurrean, eta harriduraz ikusi dugu nola manipulatu dituzten argudioak eta inkestak, nabarmenki manipulatu ere: lotsarik bat ere gabe ziurtatzen zen argudio eta inkesta horietan saltokiak jaiegunetan irekitzea kontsumitzaileen eskaria zela, kontsumitzaileek eskatzen zutela neurri hori hartzea.

Horrela bada, Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioak argi esan behar du, behin eta berriz egin izan duen bezala, jaiegunetan irekitzea ez dela kontsumitzaile gehienek eskaria; ezer eskatzekotan, hau eskatzen dutela kontsumitzaileek: produktu seguruak eskain daitezela, kalitate/prezio erlazioa ona izan dadila, merkatarien erantzuna profesionala izan dadila eta bezeroari erantzuteko zerbitzua ona izatea, besteak beste.

Eztabaida honen guztiaren atzean merkatarien arteko gerra izugarri bat dago, eta kontsumitzeko bi eredu ezberdinek egiten dute talka gerra horretan. Hirietako auzoetako merkataritza txikia dago alde batean, eta aldirietako saltoki handiak bestean; saltoki handiek, merkataritza-eskaintzaz gain, aisialdiko eskaintza indartsua edukiko ohi dute, eta merkataritza-jarioa eredu horretarantz erakarri nahi dute.

EKEren iritzia da jaiegunetan irekitzeak kontsumitzaileen ohiturak aldaraz ditzakeela, eta oldar hutsezko kontsumo eragin dezakeela, kontsumo eta aisialdia lotzeak hartaraututa; eta, azkenean, familia askorentzat zailagoa izango dela aurrezte, eta gehiegizko zorraren pean geratzeko arriskua izan dezaketela horrela.

Baina badago beste arrazoi bat ere jaiegunetan irekitzearen alde ez agertzeko: gure hirietan zelako gizarte-bizimodua nahi dugun, hain zuzen ere.

Gure ustez, hiriko merkatariek, auzoko dendariak, badu gizarte-eginkizun bat, eta eginkizun hori zaindu eta sustatu egin behar da: kalea gizatiarrago bihurtzen dute, bezeroarekin zuzeneko tratua izanez; alaiago eta ikusgarriago bihurtzen dituzte kaleak, eta ingurumenari ere laguntzen diote, erosketak egitera joateko autoa hartu beharrik ez baita izaten; eta, gainera, segurtasun gehiago ere ematen dio hiriari, merkataritza duen hiri bat seguruagoa baita, bebarruetan eta etxabeetan dendak itxita dituen hiri baten aldean.

Pablo Vivancos El Boulevard merkataritza guneko zuzendaria



Eusko Jaurlaritzak merkataritza-ordutegiak arautzeko Dekretua onartu zuela-eta, jarrera ezberdinak agertu dira eragile batzuen eta besteen artean, eta interesak askotarikoak izate horregatik beragatik (beti ez dira elkarren kontrakoak, sarri sinetsarazi nahi

digutenaz bestera), beharrezkoa zen gutxieneko batzuk arautzea, hutsune hori betetzea. Beraz, lege-hutsune hori eta jarrera ezberdinak aurrean ditugula, lege berri hori agertze hutsa bera ona da, lege horren edukia alde batera utzita; izan ere, abiaburu bat da, eztabaida egituratzeko eta ondorengo adostasun nahitaezkoa iristeko. Ikus, horren adibide, saltoki handiek eta "ohiko" merkataritzak Bilboko eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberetan erdietsitako hitzarmenak (2 jaiegunetan irekitzea) eta Arabako lurraldean eduki dituzten elkarriketak. Arau berriak ireki du horretarako bidea; aukera ematen du (ez dio inori ezartzen) saltokiak jaiegun-kopuru jakin batean (8 guztira) irekitzeko, eta aukera horretatik abiatuta (ez betebeharra), badago alde guztien interesak kontuan hartuko dituen adostasun baterako bidea egitea.

Dena dela, hau nabarmendu behar da: dekretuak, ezer ezartzekotan, murriztapenak ezartzen dizkio merkataritza-jardura askeari, gehienez ere 8 jaiegunetan ireki daitezkeela ezartzen baitu (52 jaiegun ditu urteak); hori, ordea, lehengo araurik eza baino hobea da, ezjakintasuna eragiten baitzuen, eta, gainera, oztopoa baitzen inolako eztabaidarik egiteko

(eztabaida hori behar-beharrezkoa izanik); oztopoa zen, hain zuzen, egitez geneukan egoera batek hala behar zuela jotzen zuelako, aztertzen hasi ere egin gabe.

Eztabaida horretan haztatu beharreko alderdiak ugari dira; alde batetik, jendearen eskaria egon badago; eta, bestetik, ordutegiak berrantolatzea onuragarria izan daiteke langileentzat ere, pizgarriak, egun libreak eta abarren bidez konpentsazio-formulak erabiliz.

Rodrigo García **Merkataritza eta Kontsumo sailburuordea**

Ekonomiaren globalizazio-prozesuen eraginez, eta horrekin batera, merkataritza-enpresen behar bezalako neurriak hartu duen garrantziaren eraginez, enpresa-dinamismo handiko egoera bat sortu da, eta bateratze-prozesuak bizkortu egin dira eta merkatuak kontrolpean hartzeko estrategia berriak garatu dira.

Arrazoi horiek eta sektorearen oraingo egoera direla-eta, eztabaida piztu da bi jarreraren artean: batzuk merkatu-askatasunaren printzipioa zorrotz errespetatzearen aldekoak dira, eta, besteak, merkataritza-mota eta merkataritza-ordutegi jakin batzuek izan dezaketen garapenari mugak ezartzearen aldekoak dira.

Herri-agintarientzat ez da erraza egoera horren aurrean erantzun egokia ematea. Euskadiko administrazioak, merkataritzaren antolamenduari aurre egiterakoan, kontuan hartu behar ditu, alde batetik, Merkataritza-jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak ezarritakoa, eta, bestetik, estatuaren oinarritzako araudia, ekonomiaren interes orokorraren itzalpekoa.

Eusko Jaurlaritzak honako irizpide hauek guztiak hartu ditu aintzat merkataritza-politikari ekiterakoan: kontsumitzaileei kalitatezko salgaien eskaintza askotarikoa bermatzea, eta, aldi berean, merkataritzako enpresa handien eta txikien arteko oreka sustatzea; orobat, enpresen artean lehia eragitea, baina merkatuan nagusigo-egoerak eragotziz; eta, hori guztia, "gertuko hiri-merkataritzaren" aldeko jarrera argia eta irmoa hartuz egin nahi du gainera, hirietako gizarte-bizimodua bilbatzen laguntzen baitu merkataritza-modu horrek, gure sailak aukeratutako leloak erakusten duen bezala. "Merkataritza non, bizitza han"

Ramón Sánchez **Donostiako Centro Erdi** **merkatari-elkarteko** **presidentea**

Felipe Aguirre **Donostiako Zaharrear** **merkatari-elkarteko** **presidentea**



Azalera handiko saltegiek jaiegune-tan irekitzeari buruz prentsan agertu diren azken berrien inguruan, argi utzi nahi dugu:

- Hasiera-hasieratik, gure jarrera izan da egun batean ere ez irekitzea, eta hori izango da aurrerantzean ere.
- Kontsumitzaileek ez dute jaiegune-tan irekitzeko beharrik ikusten eta gaur egungo ordutegiarekin beren beharrak asebeteta daudela pentsatzen dute (Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Sailak egindako azken inkestako datuen arabera).
- Jaiegune-tan irekitzeak azalera handiei baino ez die mesede egingen; bestelako saltokientzat, berriz, kaltegarria da oso.
- Gipuzkoan azalera handiak urtean bi jaiegune-tan (ekainak 3 eta abenduak 4) irekitzeko sinatutako akordioak ez du inoiz Centro Erdi eta Zaharrear elkarten babesia izan. Egindako negoziazioetan, ez da kontuan hartu gure elkarten eta beste batzuen iritzia, nahiz eta merkataritza eta ekonomia ahalmen oso handia izan Gipuzkoako lurraldean.
- Kontuan izanik gaur egun dendak irekitzeko askatasuna dagoela eta kontsumitzaileak eta merkatariak asebetetzen dituen oreka dagoela merkataritzaren eta kontsumoaren artean, neurrigabekeria iruditzen zaigu atsedena hartzeko dugun eskubidea ez errespetatzea banatzaile handien interesei men egitearren eta gure negoziok jaiegune-tan irekitzera behartzea egingo zaigun kalte ekonomiko larriari aurre egin ahal izateko.



Aintzane Orbegozo **ELA - Zerbitzuak-eko antolakuntza idazkaria**

Eusko Jaurlaritzak atera berri duen dekretuaren bitartez merkataritza gune handien aldeko apustua egiten ari da. Orain arte zegoen idatzi gabeko ituna apurtuz igande eta jai egunetan merkataritza zentroak irekitzea ahalbideratzen du. Beste aukerarik ez duela esaten du, baina gai honekiko eskumenak kendu dizkio Espainiako gobernuek eta ez du ezertxo ere esan. Soilik legea bete du. Igande eta jai egunetan irekitzeak salmentak denda txikietatik multinazionalen hauetara pasatzea suposatuko luke, dendari txikiek ezin baitute handiekin lehiatu. Honen kalteak argi daude zeintzuk diren. Sektoreko langileek lehendik ere nahiko lan baldintza eskasak badituzte igande eta jai egunak lanera joan behar izateko! Batetik galtzen diren lanpostu guztiak ez dira bestean errekupe-ratzen eta gainera sortuko litzatekeena prekarioagoa litzateke. Jai egunetan jai egiteko eskubidea badute eta eskubide hori ez dago kontsumitzaileek erosteko dutenarekin kontrajarria. Kontsumitzaileek ez dute eskatu egun hauetan irekitzea, eta enpresa txiki eta ertainek ere ez. Hasieran esan bezala, gutxiengoaren aldeko araua da. Beraz galdera ez da arautzea beharrezkoa den ala ez. Sindikatuok arautzea eskatu dugu, 0 irekieratarata. Jaurlaritzak arautu du, baina noren aldeko apustua egin duen ere garbi utzi du... Beste erabaki politiko batzuetan gehiengo errespetatu behar dela eskatzen duenean, gogoratu dadila gehiengo honekin ere! Eredu Neoliberalaren pausoak jarraitzeak horrelako praktika soberanista dakar.



ZUZENDARIA EDO LIDERRA IZAN?

Liderra izatea edo besteengan eragiteko gaitasuna

Goizero, iratzargailuak jo eta beste egun bati ekin behar zaionean, buruan itzulinguruka nahas-mahas ari zaizkigu aurreko eguneko gertakaririk bizienak eta alkandoraren botoiak lotu beharra, gosariko kafesnearen usaina, etxekoei egun onak ematea eta ohiko dendan egunkaria erostea; neurri handi batean, gogoan darabilzkigun irudi horiek nolako, halako aldartea izango dugu egunean zehar. Eta irudion artean aparteko garrantzia izaten dute lankideen eta, bereziki, arduradun edo buruen hitz, imintzio edo aipamenek.

Norbaitengan eragina izatea, jarretan eragitea hain da garrantzitsua, lider izatearen muina dela esan ohi da. Eta kontuan izan behar da lider kontzeptua esanahi askotariko kontzeptua dugun arren, definizioetako bat hau dela: pertsonengan eragiteko arte edo prozesua da, pertsona horiek gogor eta gogo onez ahalegindu daitezen guztiontzako helburuak lortzeko (Koontz eta Wehrich, 1994).

Zuzendaria edo liderra?

Liderrak ez du zertan kargurik izan; egitura formalez gaindiko nolakotasuna da. Izan ere, liderrak autoritate informala du, erakundearen baitako dinamika ezkutu eta kontrolaezinak eman dion aginpidea.

Dena den, gehienetan, lider izateko duen gaitasun horri esker, pertsona hori erakundearen baitako botere-guneetara iristen bada ere, eta zuzendari edo kudeatzaile bihurtzen, ez da beti hala gertatzen. Nahi izatekoa litzatekeen egoeran, liderrak prestigiozko aginpidea beharko luke, zuzendari gisa egindako kudeaketa bikainak erakarrirako prestigioa, eta aldi berean, gakoa

diren prozesuetan lider gisa parte hartzeko gauza izan, hain zuzen ere dena delako erakundearen kideen interesen eta erakundearen helburuen arteko desorekak sortzen direnean. Batzuetan, batetik, aginpiderik gabe kudeatzen duen zuzendaritza-taldea izaten dugu, ordezkari-taldea baino egiten ez duen zuzendaritza, erakundearen egitura formalean diharduena, eta bestetik, aldi berean, prestigioa duen lidergo natural bat, egitura ez formalean diharduena eta erakundearen benetako arazoekiko konpromisorik sentitzen ez duena. Orduan sortzen dira arazoak.

Liderrak erakundearen baliabide emozional eta espiritualetan jartzen dute lehentasuna, eta zuzendaritzako kideek, berriz, baliabide fisiko eta materialean. Liderrak aldaketak bultzatzeko joera izaten dute, gogo biziz etorkizunari begira daude, estrategiak sortzen dituzte, taldekideen konpromisoa lortzen saiatzen dira, eta oztoporen bat agertuz gero, hori gainditzen ahaleginduko dira. Zuzendaritzako kideek administrazio edo kudeaketako lana lehenesten dute: helburuak zehaztu, helburuak lortzeko baliabideak eskuratu, antolatu, ordezkoren esku utzi beharrekoa utzi, egin beharrekoak nola egin diren kontrolatu eta hartutako erabakiak gainbegiratu dituzte.

Eskatu ere ez zaie gauza bera eskatzen liderrei eta zuzendaritzako kideei. Azken horiei eraginkortasuna eskatzen zaie. Lehenengo kasuan, liderren kasuan, beren jarraitzaileekin elkarbanatzen dituzten printzipio eta baloreekiko integritate eta fideltasuna izatea espero da. Zuzendaritzako kide gaitua izateko, batez ere adituen gaitasun teknikoak behar izaten dira. Lider ona izateko, berriz, batez ere esperientzia eta heldutasun pertsonala eta profesionala behar izango dira.

Lider izatea eta lantaldea

Lehen, lidertzat pertsona bakarra jotzeko joera bazegoen ere, norbanakoarekin lotzen bazen ere, gaur egun taldeari, multzoari lotutako ezaugarria da lidergoarena.

Taldelanaren gaia seguru asko azken aldiaren enpresa eta irakaskuntza munduan puri-puritan daudenen artean nabarmenenetakoa da. Lan egiteko modu berri honek bazterrean uzten du industriaren nagusitasunaren garaiko eredu tailorista. Eredu tradizional honetan oso garbi zegoen lana nork kontrolatzen zuen, nork agintzen zuen eta nork zuen emaitzen gaineko erantzukizuna.

Gaur egun, ordea, talde eta antolakundeetan sortzen da ezagutza, taldeko kideen lanaren emaitza da, eta informazioa denen artean elkartrukatu eta aztertuta, balio erantsia gehitzen zaio. Baina hori guztia egin ahal izateko, lantaldeetako pertsonak beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzeko gaitasuna dutenak izan beharko dute, sentipen edo emozioen oreka puntua lortuta dutenak, pertsona sortzaileak, informazioa aztertzeko gaitasuna dutenak, ikasizaleak eta arriskuzaleak, irtenbideen bila joko dutenak eta taldean moldatzen direnak.

Gure gizartean eta antolakundeetan gauza asko zalantzarazkoak dira, eta aldakortasuna da irauten duen gauza bakarra. Horregatik, beharrezkoa da aldi berean lankidetzan jardun eta lehiarako gaitasuna ere izatea. Eta horretarako, ezinbestekoa da ingurunean konfiantza eta beste pertsona batzuen laguntza ere badugula sentitzea. Lantalde sendo, egonkor eta eraginkorrak sortzea da enpresek zein pertsonak garatu ahal izan eta merkatuak eskaintzen dizkieten aukerez baliatzeko modurik onena.

Elkarbanatutako ikuspegia

Bizi garen mendeko enpresetan, hau da, ezagupenaren arloko antolakundeetan, nagusi diren baloreek ez dute zer ikusirik industrializazioaren garaikoekin; izan ere, orain deszentralizazioa, negoziazioa, taldelana, berrikuntza, hobekuntzaren eta kalitatearen aldeko lana, lan anitzetarako balio izatea eta komunikazioa ditugu balore nagusiak. Hori dela eta, XXI. mendean laneko jarreraren artean garrantzi handiena dutenak ondorengoak dira: denen artean banatutako erantzukizunak, denek pentsatu eta betearaztea, malgutasun edo egokitzeko gaitasuna, pertsonaren beraren garapena eta lanbideko garapena bideratzea eta antolakunde edo enpresa ere garatzea. Azken batean, eta batez ere, ondorengoa da kontua, alegia, antolakunde batean dihardutenek amets bera izatea, “bisio” bera izatea, finean bisio hori baita “enpresa-proiektua abiarazteko lehen sorkaria, lehen txinparta”. Bisio on bat helburu handi bat da, enpresan sormenaren aldeko tentsioa sortuko duena, arrakastaren bidetik jotzeko. Eromen arduratsua sortu behar du, taldeko kide izatearen harrotasuna eragingo duen eromen arduratsua” (Dolan eta Martin, 2000:205).

Elkarbanatutako ikuspegiaren bidez, antolakundeko kideek beren eguneroko jarduerak helburuetarantz bideratuko dituzte, konpromisoa sentitzen dute, helburuak areagotzen, bikaintasunaren bila jotzen.

Karl Albrecht-ek dioenez, liderrak kontuan izan behar du bisioa denek ulertu behar duten zerbait izan behar duela, ez baita ahaztu behar “gaur egun enpresek dituzten krisi asko esanahiaren krisiak direla. Jendeak ez du segurtasunik bere buruarengan, ez baitu ikusten *zeratik?* galdetu aurretik *zer?* galdetu behar duela lehenik. Orain dagoeneko ez dute ikusten gauzak ondo zehaztuta daudenik eta gogor lan egiteak arrakasta ekarriko dietenik. Gero eta jende gehiagok ditu zalantzak bere enpresa edo antolakundearen etorkizunari buruz, eta ondorioz, nork bere ibilbide profesionala eta etorkizuna ere lanbro artean ikusten du, ez oso garbi. Gero eta sarriago, antolakundeek eta bertako kideek esanahiaren inguruko krisiak jasaten dituzte... Eta ingurune berri horretan, liderraren lekuan egoteko gogoia dutenek ez dute ahaztu behar zer nolako garrantzia duen eta zenbateraino den sakona gizakiok dugun esanahi edo zentzu premia hori. Giza gurari oinarritzakoa da, sekula desagertuko ez den nahikaria” (Albrecht, 1994:22).

Zein da bidea? lidergo eraldatzailea

Lider handiek gaitasun berezia izaten dute buruan itzulinguruka dituzten ideiak helburu zehatz bihurtzeko, “bisio” bihurtzeko. Beste batzuen artean, azpimarratzekoak izan dira Henry Ford, Walt Disney, Martin Luther King... Buruan zuten ametsa modu argi, erraz eta grafikoan ikustarazi zieten jarraitzaileei, gehiene-

tan analogia eta adibideez baliatuta. Horren bidez konfiantza eta sinesgarritasuna sortzen dute. Nork bere egiten du liderraren bisioa, eta bisio hori betetzeko konpromisoa hartzen da, gogo biziz. Hori gertatzen da lidergo eraldatzailearekin, zeren hainbat ikerketak erakutsi duenez, antolakundeko pertsonen gogobetetasuna, konpromisoa eta eraginkortasuna areagotzea lortzen du, eta pertsonok bakoitzak bere interesen gainetik taldearen edo komunitatearen alde egitea erdiesten (Bass, 2005).


Hiru dira lidergo eraldatzaile horren oinarritzko ezaugarriak: 1) liderrak etorkizun oparoa aurreikusten du, horretara iristeko modua erakusten, estandar jasoak zehazten eta bere burua esaten duenaren adibide jartzen du; jarraitzaileek eredu gisa hartu eta imitatu egin nahi izaten dute (karisma duen liderra, inspirazio bidezkoa); 2) Jarraitzaileei aurreiritziak zalantzan jartzeko, berritzaileak eta sortzaileak izateko eskatzen die liderrak (estimulazio intelektuala); eta 3) jarraitzaileekin banan-banan jardungo du, bakoitzak laguntza eta garapen premia berezia izango baitu (banan-banako harremana).

Lider eraldatzaileak hartu eta ematearen, elkar elikatzearen garrantzia azpimarratuko du, modu irekian komunikatzearen, arretaz entzutearen eta elkarrenganako konfiantza izatearen premia. Era horretan jardunda, liderra antolakuntzetako kultura berriaren sinbolo bihurtu da.

Erreferentzia bibliografikoak

- Albrecht, K. (1994). *The Northbound Train: Finding the Purpose, Setting the Direction, Shaping the Destiny of Your Organization*. New York: AMACOM.
- Bass, B., (2005). “El futuro del liderazgo en las organizaciones que aprenden”. En AA.VV. *Liderazgo y organizaciones que aprenden*. Bilbao: I.C.E. –Universidad de Deusto, pp.331-361.
- Venís, W. Y Nanus, B. (1985). *Leaders*. New York: Harper and Row.
- Dolan, S.L. y Martín, I., (2000). *Los 10 Mandamientos para la Dirección de Personas*. Barcelona: Ediciones Gestión 2000.
- Koontz, H. y Wehrich, H. (1994). *Administración. Una perspectiva global*. Méjico: McGraw –Hill.

Visitación Pereda
Deustuko Unibertsitatea



Comunicación empresarial

Luecke, Richard
Itzultzailea: Barrera, Mariona
Deusto
Barcelona, 2004
164 or.


Gida bat, praktikoa, edozein erakundetan egoki komunikatzeko bai idatziz, bai ahoz. Adibide praktikoekin hornituta, ematen diren aholkuak praktikan nola gauzatzen diren ikusteko aukera ere ematen du, kasuen azterketen bidez. Mezua ondo helarazteko estrategiak, orri zuriari aurre egiteko bideak, zirriborroa idazteko aholkuak, diseinurako ideiak, estiloa zuzentzeko jarraibideak, ahozko aurkezpenak egiteko moduak... Kapitulu bakoitzaren bukaeran esandako mezu nagusiak laburbiltzen dira.



Gazteak eta Administrazioa Irakaslearen liburua / Ikaslearen liburua

Arana, Amaia; San Martín, Elena
Debagoieneko Mankomunitatea; Antzuola, Aretxabaleta,
Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga
eta Oñatiko udalak
Donostia, 2004
34 or. / 47 or.


Unitate didaktikoa dugu. Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek argitaratu duten *Idatzia*k liburuxkarekin batera lantzeko. Lehentxoago edo berandutxoago denok izaten dugu administrazioa jotzeko beharra: zerbait eskatu edo erreklamatzeko, ziurtagiriren bat eskatzeko... eta hasieran behintzat ez da batere erraza izaten ondo moldatzea. Bada, horrelakoak: eskaerak, kexak, erraklamazioak eta abar, nola egin ikasteko material egokia da, eta ez bakarrik idatzia lantzeko, ahozkotasuna ere lantzen da-eta benetako egoeratan oinarrituta.



Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria

69. II alea
Batzuren artean
Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Bilbao, 2004
666 or.

Liburu honek *Hizkuntzen bizikidetasuna aniztasunean* gaiaren inguruan 2003an EHUko Udako Ikastaroan landutako hitzaldiak biltzen ditu; honelakoak aztertzen dira: hizkuntzak elkarrekin bizitzeko ereduak Euskal Herrian, Europako Batasuneko eleaniztasuna, Espainiako Estatuko erakunde zentralen artean hizkuntzak elkarrekin bizitzeko esparrurik eza, jurisprudentzia konstituzionalak Espainiako eleaniztasuna garatzeko dituen mugak, Europako Kontseiluak landu zuen *Eskualdeetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna* Espainiak berrestek izandako ondorio juridikoak...



Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistikoa

Usarralde, Ibon; Martínez de Luna, Iñaki
Soziolinguistika Klusterra
Oñati, 2004
100 or.

Aspaldiko kontua dugu: gaitasunak ez du erabilera ziurtatzen. Euskararen erabilera areagotzeko azterketa asko eta sakonak egin izan dira gure artean eta programa bereziak ezarri ere bai gizarteko arlo gehienetan: lan-munduan, gaitetxoaren artean, eskoletan, familietan, merkataritzan... Oraingo honetan, erabileran eragiten duten faktoreak identifikatu eta bakoitzaren garrantzia zehaztu eta neurtu nahi izan dute; antza denez, bizindar etnolinguistikoa eta euskararen erabilerean artean badago nolabaiteko lotura bat: herri batean bizindar etnolinguistikoak gora egiten badu, euskararen erabilera ere gora egiten du. Gaitasunaren eta erabilerean arteko aldea murrizteko eta eskuartzeko programa eraginkorrak lantzeko bidea zabaltzen digu.



Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea

Confluencia de los planes para
fortalecer el uso del euskera en los
centros escolares y de los modelos
municipales del Plan General de
Promoción del Uso del Euskera

Euskararen Aholku Batzordea. Kultura Saila.
Eusko Jaurlaritza
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Vitoria-Gasteiz, 2004
51 or. / 53 or.

Erramun Osak eta Iñaki Arrutik landutako txostenean oinarrituta, Euskararen Aholku Batzordeak ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak udal-ereduekin (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia - EBPN) uztartzeko proposamenak bildu ditu liburu honetan. Hiru atal nagusi ditu: lehenengoan, ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeari buruzko gogoeta egiten da; bigarrenean, EBPN udal-ereduak garatzeko neurriak lantzen dira; eta, hirugarrenean, aurreko biak uztartzeko proposamena egiten dute egileek: eskola dugu hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutaberik sendoenetakoa, baina zeregin hau lotuta dago estu-estu euskal gizarteko beste eremu guztiekin; gaur eskoletan euskalduntzen ari diren haurrei aukera eman behar zaie bizitza sozialeko edozein esparrutan ere euskaraz bizi ahal izateko. Eta horretarako, ikastetxeetako planak eta udaletan abian direnak uztartu behar dira; horrela, gainera, planak askoz ere eraginkorragoak izango dira.

Euskaldunak eta esklabotza

XVI. eta XVII. mendeetan espainiar monarkia munduan artean inoiz izandako inperiorik handiena, hedatuena eta indartsuena zen. Hiru kontinentetan zehar, esklabotzan oinarritutako inperioa zen. Europan –ipar Europan, bederen– XIII. mendeaz geroz desagertutako esklabotzak loraldi berri bat izan zuen Ameriketara XVI.etik XIX.era.

Euskal herrialdeak inperio global horren metropoliaren zati ziren eta euskal jendea inperio horretan zehar ziharduen konkistatzaile, merkataria, burokrata zein soldadu gisa. Ez da, bada, harrigarria izango sistema esklabista hartan euskaldunek erabat txertatuta agertzea lehen uneetatik. Horretaz, Ameriketara konkistatzaile eta populatzaile ibilitako lehen euskaldunak esklabo jabe ziren, esklabotzara makurrarazitako indioak izan ala Afrikatik ekarri berritako esklabo beltzak izan.

Esklabotzak, ordea, ia lau mende iraun zuen Ameriketara: hasiera-hasieran indioak esklabotu ondoren, Afrikatik esklabo-tratu izugarria itzali zen arte eta, XIX. mende hondarrean, esklabotza bera galarazi zen arte. Eta Espainiaren lurraldeetan galdu zen azkenik, gainera, Kubako irlan.

Indietan agertzen zaizkigun lehenetariko esklaboek ere izen euskaldunak zituzten, zergatik ez dakigula: Narváez konkistatzailearen esklabo zen *Francisco de Eguía*, Ameriketara nafarrerria eraman zuen lehena, eta Balboarekin Itsaso Barea aurkitu zuenekoan berarekin zeraman *Nuflo de Aguirre* esklabo beltza.

Mende guzti horietan, euskaldun-jendeak esklabotzarekin eta esklabo-salerosketarekin lotutako zenbait arlotan jardun zuen: esklabo-ontzietako kapitain, esklabo-salerosketan inbertsiogile, esklabo-jabe eta lur-jabe, esklabo-kontrabandoan... Hor daude Sevillan, Cadizen, Kolonbian edo Jamaikan *Juan Lopez de Recalde*, *Miguel de Uriarte*, *Francisco de Aguirre*, *Lorenzo de Ariostegui*, *Francisco de Garay*, *Luis de Lizarazu*, *Juan Uribe* edota, “Hamekabehatz” lapurtarra, XX. mende erdian langile portugesak eta XXI.lean magrebiarrak edota Saharaz behitiko afrikarrak Europan sartzen ibili diren mafien antzera.

Lau mendetako industria emankor horretan, dena den, bi euskal izen nabarmenak zaizkigu besteen aurretik: Caracaseko Konpainia gipuzkoarra eta Zuluetaarrak. Gipuzkoan XVIII. mendean sortutako Caracaseko Erret Konpainia Euskal Herriak emandako merkataritza-ekinbide handienetakoa dugu: Espainiako Erregeren baimenarekin, Probintziako aitonen seme, jauntxo, merkataria eta elizgizon ugari jarri zuen kapitela, Argien aroko Europa osoko beste hainbat konpainiatan bezala, Indiekiko salerosketa bultzatu eta irabazi politik pilatzeko. Ezagunak dira kakaoa Europan eta Espainian zabaltzen zuen Konpainiak izan zuen arrakasta. Ezkutuago geratu da, aitzitik, esklabo-salerosketak ere irabazi ederra eman ziola Konpainiari eta, ondorioz, Gipuzkoari. 1754 eta 1765 artean, Konpainiak hamabi mila beltz esklabo eraman zituen Caracaseko portura, Jamaikan edota Karibeko beste portuetan erositara.




Amurrioko jatorriko Zulueta tarrena ere oso da ezaguna. Julian Zulueta amurriarra Habanako azken esklabozale handia izan zen, XIX. mendearen bigarren erdian: esklaboak erosi eta eramaten zituen Kubara eta esklaboen lan-indarrez zebilen *hacienda* handi bat zuen irlan: *Álava* izenekoa. Bere negozioetan lankide zituen, bestalde, Pedro Juan de Zulueta lehengusua eta Lizardi etxea, Liverpool-en. Gainera, Zulueta gizon aurrerakoa zen eta esklaboak Afrikatik ekartzeko, bidaia izugarri eta hilgarri hartan, txertoa jarrarazten zien, bidean hainbeste hil ez zitezten, ez dakigu errukiz ala diru-galerak gutxitzearen. Esklabo-salerosketaren azken hamarkadetan, legezkoa zenean eta legez kanpoko kontrabandoan, ingeles gerra-ontziei ihesi ibili behar izaten zuten lurruntzi moderno-modernoak erabiltzen zituen, hala nola 1863an Wilkes almirante britainiarrak itsasoan atxilotu zuen *Noc Daqui* itsasontzi apain eta euskalduna.

Zer esanik ez, Euskal Herrian ere izan zen esklabo-jendea. Euskal herrialdeetako agintariek, jakina denez, odol-garbitasunean eta kaparetasun orokorrean oinarritu zuten, mendeetan, bertako erakundeen burujabetasuna. Horren kariaz, hegoaldeko lurraldeetan debeku egin zen “judu, mairu, agote eta odol txarreko zein nahastuko” inor bizitzea. Ezin onartuko zuten, bada, gure artean esklaborik bizitzea (orain arte esan ez badut orain esango dut, hots, esklaboak arraza eta kasta jakinekoak ziren beti: hasieran mairuak, gero kanarietako gantxeak edota Ameriketako indioak eta, azkenik eta mende askotan, beltzak).

Baina Euskal gizarteak Espainiakoarekin zituen harremanak zirela eta, laster hasi ziren esklaboak agertzen: Erregeren ofizialek beren zerbitzurako ekartzen zituztenak, Ameriketatik bueltan euskaldun aberastuak ekartzen zituztenak, kontrabandoan ala itsasoan harrapatuta euskal portuetan suertatzen zirenak eta abar. Horrela, gero eta aurkakoagoak izan ziren, mendeen bueltan, euskal erakundeen eta esklabo-jabe ziren handikien eta merkatarien jarrerak. Ohiturek eta Erresumarekiko harremanek esklaboak ugaltzera zeramatzen; euskal legeen iraupenak, berriz, euskal lurretan esklabo-jenderik ez onartzera.

Eneko Oregi
Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialeko burua

Hitz gurutzatuak



EZKER ESQUIN

1. Frantziako hiriburua. 2. Kitatzeke dago. Lurralde. 3. Gaizto, maltzur. Honakoa. 4. Aluminioaren ikur kimikoa. Oinetako mutur bakoitza. 5. Kontsonantea. Bost bider bi. Potasioaren ikur kimikoa. 6. Ipar EHn, maitale. Gar. 7. Pinu mota. Gizon izena. 8. Sortu zintuena. Nafarroa Beherean, era. Berehala.

GOITIK BEHERA

1. Ez estu, nasai. 2. Zilegi. Meatzea. 3. Musu. Pareta. 4. Arabako. Urrearen ikur kimikoa. 5. Röntgen. Bizkaiko udalerrria. Kontsonantea. 6. Berrogeita bederatzia, zenbaki erromatarren arabera. Abian jarriak. 7. Ipar EHn, adoretzu, ausart. Hiru adierazteko aurritzia. 8. Norat atzizkia. Begirada. 9. Bel-durti, koldar.

Letra zopa

G	A	A	E	K	U	Z	O	R	E	M	A
E	I	N	E	S	T	I	H	A	S	E	T
A	R	L	I	T	A	B	G	E	K	I	D
L	U	H	U	D	I	O	Z	M	U	T	U
I	Z	A	B	E	R	D	E	A	P	R	E
A	R	A	Z	R	O	U	T	R	U	S	K
G	U	M	I	T	H	A	L	R	H	O	A
D	N	A	H	I	T	I	M	O	R	E	A
R	A	T	U	O	I	Z	A	I	T	O	I
H	I	A	B	E	L	T	Z	A	U	S	R

LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan zortzi kolore. Hitzak ezker eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- Berria: 943/30 40 30
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- NAPIko Euskaltegia: 848/42 33 19-51
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 848/42 33 49-51
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/02 81 00
- UZEI: 943/47 33 77

Soluzioak

Hitz gurutzatuak

Ezker eskuin:
 1. Paris. 2. Zor. Lur. 3. Zital. Hau. 4. Al. Behatz. 5. B. Hamar. K. 6. Amoros. Su. 7. Let. Aitor. 8. Ama. Ara. 9. Aurki.

Goitik behera:
 1. Zabal. 2. Zil. Mea. 3. Pot. Horma. 4. Arabar. Au. 5. R. Lemoa. R. 6. IL. Hasiak. 7. Suhar. Ttl. 8. Rat. Soa. 9. Uzkur.

Letra zopa
 Zurra, beltza, gorria, horia, urdina, berdea, marroia, morea.